

HN Proiektoa 2018-22



ikastetxeen hizku

# HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA 2018-2022

*Materiala*

**EREMUEN GAINKO HAUSNARKETA**

***EREMU INSTITUZIONALA***

**Ulibarri Programa**

**Hizkuntza Normalizazio Proiektua.**

**EREMU INSTITUZIONALA LANTZEKO ORIENTABIDEAK**



## Lan taldearen ibilbidea

**2011ko** ekainean, Ikastetxearen Garapena lan taldea bildu zen, lehen aldiz. Bilera horretan gure lanaren nondik norakoa eztabaidatu ondoren, Eremu Instituzionalari dagozkion datuen bilduma aztertu eta orrazketa egitea erabaki zen. Lan prozedura ere finkatu genuen. Lan hau osatzeko, banakako lana, binakakoa eta talde-lana egingo zen, zuzeneko 5 bilera eta, bileren artean, talde-lana egiteko sareak ematen dizkigun aukerak baliatuko genituen.

2010-11an Ulibarri Programako Ikastetxeek Ikasturteko Planetan idatzitako helburuak eta jarduerak aztertu genituen. Hasieran, gaizki beteak, okerrak zituztenak edo errepikatuta zeudenak, nahastuak, ulertezinak,...ezabatuta, helburu berbera zuten jarduerak helburu zabalarenekin lotuta mantenduz eta besteak baztertuz, helburu-jardueren sekuentzia egokiak lortu genituen. Geroago, ikastetxearen lehentasunak nabarmentzeko, minimoetatik maximoetara doan hurrenkeraren arabera ordenatu genituen.

Eta poliki-poliki **2011-12** ikasturtean **Ikasturteko Planeko Eremu Instituzionalaren GIDALIBURUA** osatu genuen. 2012ko Maiatzean lehen zirriborroa osatu eta HN koordinazio bileran aurkeztuta gure lankideen ekarpenak jaso genituen.

Ekarpen horietaz gain, gure ibilbidean, datuak aztertu ahala, bestelako beharrezko batzuk antzematen joan ginen. Hala nola, adibideak baino lehen azalpenak eman behar genituela, sailkapena komenigarria zela, sarrera egin behar zela, Normalizazioa sustatzeko erabakietan (Hezkuntza Proiektua, Hizkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua,...) lege markoa birpatsatzea komeni zitzaigula eta gidaliburuan agertzen den helburu-jardueren sekuentzia andana nola lotu Hizkuntza Normalizazioako Proiektuarekin aztertzea ere beharrezkoa zela uste genuen.

Hori dela eta, **2012-13** ikasturtean, aurreko urtean hautemandako beharrezkoak, gure lankideen ekarpenak aztertuta eta 2013-14an ikastetxeek lau urteko Proiektua egin beharko dutela kontuan hartuta, horretan laguntzeko zerbait prestatzea egokia iruditu zitzaigun. Ondorioz, Ikasturteko Planeko helburu-jardueren sekuentziak berriro aztertu genituenean konturatu ginen batzuk oso zabalak zirela eta lau urtean lortzekoak izan zitezkeela. Beraz, horietatik izan dira, hain zuzen ere, Hizkuntza Normalizazio Proiekturako (HNPrako) erabili direnak.

Lanari bukaera emateko, estiloa eta formatua bateratu ditugu HNPekeko 4 urteko helburuak eta dagozkien ikasturtez ikasturteko Planetako helburu-jardueren sekuentzia egokiak dokumentu bakar batean jasotzearen. Horrenbestez, prozesu honen guztiaren ondorioa da zuen eskura jarri dugun dokumentu hau: **Ulibarri Programa. Hizkuntza Normalizazio Proiektua. EREMU INSTITUZIONALAKO LANTZEKO ORIENTABIDEAK.**

## Zertan datza eremuaren garrantzia?

Eremu instituzionalaren garrantzia hezkuntza-komunitate osoaren erabakiak biltzean datza. Izan ere, hezkuntza-komunitateari eragiten dioten dokumentu, agindu eta erabakiak, hau da, ikastetxearen *staff* erabakitzaileenak, eremu honi dagozkio. Era berean, ikastetxeko marko normatiboa adosteko, Hizkuntza Normalizazioak ikastetxeko beste proiektuekin duen lotura eragingarria da; hala nola, Hezkuntza Proiektuarekin, Curriculum Proiektuarekin eta Hizkuntza Proiektuarekin.

Hezkuntza-komunitatea trinkotzeak, Hizkuntza Normalizazioaren ahaleginen ikuspegitik, hiru funtsezko etekin izan ditzakeela zioen Fishmanek (1991):

Lehen, euskaltzaleen talde-identitatea eraikitzeke balio dezakeela; izan ere, zailtasunei aurre eginez kideen arteko elkar indartze efektua sortzen delako, eskolakideek elkarrekin konpromisoak hartuz jotzen dutelako, eta, bide batez, hezkuntza-komunitateak irabazten duen izaera eta nortasuna hedatzea bultzatzen dituelako.

Bigarrena, euskararen aldeko apustua egin duten hezkuntza-komunitateetan euskaraz dakiten helduentzako lanpostuak sortzen direlako (esate baterako, jantokiko langileak, zaintzaileak, autobus gidariak).

Azkena, eskola-alorrean, besteak beste, helduen parte-hartzea, helduentzako ikasketak eta belaunaldien arteko elkarreragina bultzatzen direnez, hezkuntza-komunitate euskaltzaleetako hartzaileak diren ikasleak hezkuntza-emaeak kontrolatutako ordainsari sistemari lotzea lortzen delako.

Ulibarri Programak Ikastetxeetako Hizkuntza Normalizazioan egindako ibilbideak erakutsi digun moduan, zuzendaritzaren inplikazioa ezinbestekoa da, eta HNPrako ikastetxeak duen egitura jarduerak burutzeko funtsezko baliabidea da.

Erabakien artean, garrantzi berezia dute ikastetxeak eremu honetan hartzen dituen harremanetarako hizkuntza irizpideak, hau da, beste ikastetxeekin, administrazioarekin zein beste eragileekin hizkuntzaren erabilera zehazteko.

Hezkuntza komunitatearen adostasuna dagokiolako eta hausnarketa faseak bertan jorratzen direlako eremu instituzionalak eragin zuzena du beste bi eremuetan, hala nola, Eskolako kideak osatzen duten 2. eremuan eta Eskolaz kanpoko ekintzak osatzen duten 3. eremuan.

Bestalde, ikastetxea herri edota eskualde zehatz batean kokatuta dagoenez, bertako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuz lan egitea komeni zaio. Hortaz, tokian tokiko udal zein elkarte edota eragileekin elkarlana egitea lagungarria izango zaio bai bere HNP egokitzeko bai euskararen erabilera gizarteratzeko.

**Zaratamon, 2013ko Maiatzaren 9an**

**Jasone Aldekoa  
Josune Igoa  
Luisana Ginea  
Markos Bilbao  
Nerea Jaio**

## Argibideak

Eremu Instituzionalak 4 esparru ditu, eta esparru bakoitzaren hasieran 4 urteko Hizkuntza Normalizazio Proiekturako helburu zehatzak proposatzen dira

Gogoratu esparru bakoitzean eragin esparru desberdinak daudela, eta horietako bakoitzean Hizkuntza Normalizazioaren Ikasturteko Planerako helburuen eta jardueren adibideak ematen direla.

**Helburuen hurrenkera** ez da ausazkoa izan. Ikastetxe batek euskararen erabilera sustatzeko aintzat hartu behar dituen gutxieneko planteamenduetatik abiatuz egin da txosten hau.

**Jardueren dagokienez**, hurrenkera garrantzizkoa denean, zenbakien bidez adierazi da. Beste kasuetan, zerrendatu egin dira inolako ordenarik gabe.

### EREMU INSTITUZIONALA

#### 1.1.-IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ESPARRUA

Esparru honetako eragin-esparruak: organu gorena, eskola kontseilua, gurasoak (partaidetza-inplikazioa), zuzendaritza, dok. administratiboak-ekonomia, jakinarazpenak, mediateka, espazioaren hizkuntza antolaketa-paisaia, hizkuntza normalizazioko egitura, bestelakoak

#### 1.2.-NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ERABAKIAK ESPARRUA

Esparru honetako eragin-esparruak: hezkuntza proiektua, Curriculum proiektua, hizkuntza proiektua, AJA, ikastetxeko kudeaketa plana, aurrekontua, urteko memoria, bestelakoak

#### 1.3.-IKASTETXEAREN HARREMANETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ESPARRUA

Esparru honetako eragin-esparruak: ikastetxeekin, berritzegunearekin, hezkuntza administrazioarekin, instituzioekin, elkarteekin, enpresekin, hornitzaileekin

#### 1.4.-ESKOLA ETA ERAGILEEN ARTEKO ELKAR HARTZEA ESPARRUA

Esparru honetako eragin-esparruak: EBPB, ikastetxeen arteko jarduerak, herriko euskara elkarteak, bestelako elkarteak, euskal komunikabideak, bestelakoak

## 1.1. Ikastetxearen antolakuntza esparrua

Atal honetan normalizazioaren egitekoan inplikaturako ikastetxeko aginte-organismoak, ikastetxearen eskumenean diren hainbat esparru eta ikastetxeak normalizazioan jarrita dituen egiturak biltzen dira.

Esparru honetako eragin-esparruak hauek dira: organo gorena, eskola kontseilua, gurasoak (partaidetza-inplikazioa), zuzendaritza, dokumentu administratiboak - ekonomia, jakinarazpenak, mediateka, espazioaren hizkuntza antolaketa-paisaia, hizkuntza normalizaziorako egitura, bestelakoak. Lau ikasturtean behin, **Hizkuntza Normalizazio Proiektua** egiten da esparru honetarako, eragin esparruak aintzat hartuz.

| HN PROIEKTUA (2014-18) Helburu zehatzak |   |
|---|---|
| -                                       | Ikastetxearen antolakuntzan euskararen erabilera areagotzea   |
| -                                       | Organo Goreneko zein Eskola-kontseiluko dokumentazioa, gutxienez, elebiduna izatea eta bileretan euskararen erabilera ziurtatzea. |
| -                                       | Hizkuntzaren Normalizazioan inplikatzeko.   |
| -                                       | Euskararen kalitatea hobetzea.  |
| -                                       | Ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa egiteko euskarazko aplikazioak erabiltzea.   |
| -                                       | Euskararen idatzizko erabilera sustatzea.   |
| -                                       | IKT eremua euskalduntzea  |
| -                                       | Diagnosi azterketa emaitzaren ondorioz euskararen presentzia areagotzea.  |
| -                                       | Estamentu guztietako kideen eraginkortasuna handitzea.  |

Ikastetxeak bere diagnosian antzemandako beharrezanez erreparatuz, ikasturtez ikasturte, 4 urtean betetzeko helburuak, eragin-esparru bakoitzean zehazten ditu. Horrela, ikasturte batean egingarriak diren jarduerak diseinatuz, ikasturte horretako helburu zehatzak nola beteko dituen agertzen du. Ikasturte bakoitzean idatzi behar den **Ikasturteko Planaren** adibideak eragin-esparrura ikusiko ditugu.

| Ikasturte bateko plana               |          |                      |          |      |      |             |
|--------------------------------------|----------|----------------------|----------|------|------|-------------|
| ERAGIN ESPARRUA                      | HELBURUA | EBALUAZIO ADIERAZLEA | JARDUERA | NORK | NOIZ | BALIABIDEAK |
| Organo gorena                        |          |                      |          |      |      |             |
| Eskola kontseilua                    |          |                      |          |      |      |             |
| Gurasoak                             |          |                      |          |      |      |             |
| Zuzendaritza,                        |          |                      |          |      |      |             |
| Dok. Administratiboak-ekonomia       |          |                      |          |      |      |             |
| Jakinarazpenak                       |          |                      |          |      |      |             |
| Mediateka                            |          |                      |          |      |      |             |
| Espazioaren hizk. Antolaketa-paisaia |          |                      |          |      |      |             |
| Hizk. Normalizazioko egitura         |          |                      |          |      |      |             |

## Organo Gorena edota Eskola kontseilua eragin-esparruak

Ikastetxe motaren arabera desberdina da organo honen izendapena, ikastetxearen jabea nor den. Herri ikastetxeek Organo Gorena dutenez, honi dagokion atala soilik bete beharko dute. Bestelakoetan Eskola Kontseilua, Artezkaritza Batzordea, Aginte Organoa edo Zuzendaritza Batzordea izan ditzakete. Beraz, aginte organoaren arabera bata, bestea edo biak bete beharko dituzte.

Edozein kasutan, batean, bestean edo bietan bete behar dena hauxe da: Organo hau normalizazioaren egitekoan zein neurritan inplikaturik den. Hemen helburu-jarduera sekuentzia logiko batzuk eskaintzen dira, Hezkuntzako estamentu honen/hauen inplikazioa lortzeko Eskolako Hizkuntza Normalizazioan.



## Ordezkaritzako Organo Gorena

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Idatzizko dokumentazioan, euskararen erabilera lehenestea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aktak euskaraz/elebietan jaso.</li> <li>2. Zirkular guztiak bidali baino lehen euskara lehenesten dela ziurtatu</li> <li>3. Bileretan euskaraz ala ele-bietan adierazten direnak aipatu.</li> <li>4. Dokumentazioa euskaraz jaso eta gazteleraz laburpentxoia egin, partaide guztien eskura jartzeko</li> <li>5. Ikasturteko Planaren onespena OOGren batzar deialdian eta aktan euskaraz/elebietan jaso.</li> <li>6. OOGan egiten diren komunikazioak, euskara hutsean egiten direla ziurtatu eta gurasoren batek arazoak balitu azalpenak jarraitzeko, tokian tokiko laguntzak eskura jarri adostu ondoren.</li> </ol>   |
| <b>Euskararen aldeko hizkuntza-irizpideak ezarri bileretan.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. OOGan, egun erdara hutsez edo gehienbat erdaraz funtzionatzen duen gune nagusi bakarrean euskararen sarbidea eta zabalpena nola egin aztertu.</li> <li>2. Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoetan euskararen presentzia eta erabilera ziurtatu.</li> <li>3. Bilerak euskaraz egin, aztergai bakoitzaren amaieran, gaztelerako laburpenak eginik</li> <li>4. Bileretan euskaraz ala ele-bietan adierazten direnak aipatu.</li> </ol>   |
| <b>Euskararen normalizazioa bidean, HNP ezagutzea eta bertan jarritako helburuak kontutan izatea beren erabaki eta jardunbideetan.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. OOG berria eratzeko orduan euskararen ezagutza kontuan hartu</li> <li>2. OOGeko partaideei Normalizazioa Plana aurkeztu eta garrantzia zein den jakitera eman.</li> <li>3. HNPko plangintza Organo Gorenean onartu.</li> <li>4. Normalizazioa planaren aldeko konpromisoa aktan jaso.</li> <li>5. Eskolako kontseiluaren batzarrean plana aurkeztu ondoren eta planaren onarpena lortu ondoren, gurasoen inplikazioa eskatu.</li> <li>6. Egitasmoak burutzeko egingo diren batzarretan parte hartu eta bertan egingo diren lanak egin.</li> <li>7. Azpikontratatzan diren zerbitzuetan euskara bermatu.</li> <li>8. HParen baitan kokatuta dagoen HNPa ikastetxeren Plan Estrategikoaren barruan kokatu eta lehentasunez hartu ikastetxeren izatearen oinarri dela ohartuz.</li> </ol> |

## Eskola Kontseilua

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |  |
|---|--|
| HELBURUA  | JARDUERA   |
| <b>Idatzizko dokumentazioan, euskararen erabilera lehenestea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aktak euskaraz/elebietan jaso.</li> <li>2. Zirkular guztiak bidali baino lehen euskara lehenesten dela ziurtatu.</li> <li>3. Bileretan euskaraz ala ele-bietan adierazten direnak aipatu.</li> <li>4. Dokumentazioa euskaraz jaso eta gazteleraz laburpentxoia egin, partaide guztien eskura jartzeko</li> <li>5. Ikasturteko Planaren onespena Eskola Kontseiluaren batzar deialdian eta aktan euskaraz/elebietan jaso.</li> <li>6. Eskola Kontseiluan egiten diren komunikazioak, euskara hutsean egiten direla ziurtatu eta gurasoren batek arazoak balitu azalpenak jarraitzeko, tokian tokiko laguntzak eskura jarri adostu ondoren.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Euskararen aldeko hizkuntza-irizpideak ezarri bileretan.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskola Kontseiluan, egun erdara hutsez edo gehienbat erdaraz funtzionatzen duen gune nagusi bakarrean euskararen sarbidea eta zabalpena nola egin aztertu.</li> <li>2. Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoetan euskararen presentzia eta erabilera ziurtatu.</li> <li>3. Bilerak euskaraz egin, aztergai bakoitzaren amaieran, gaztelerako laburpenak eginik.</li> <li>4. Bileretan euskaraz ala ele-bietan adierazten direnak aipatu.</li> </ol>  |
| <b>Euskararen normalizazioa bidean, HNP ezagutzea eta bertan jarritako helburuak kontutan izatea beren erabaki eta jardunbideetan.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskola Kontseilu berria eratzerako orduan euskararen ezagutza kontuan hartu.</li> <li>2. Eskola Kontseiluko partaideei Normalizazioa Plana aurkeztu eta garrantzia zein den jakitera eman.</li> <li>3. HNPko plangintza Eskola Kontseiluan onartu.</li> <li>4. Normalizazioa planaren aldeko konpromisoa aktan jaso.</li> <li>5. Eskolako kontseiluaren batzarrean plana aurkeztu ondoren eta planaren onarpena lortu ondoren, gurasoen inplikazioa eskatu</li> <li>6. Egitasmoak burutzeko egingo diren batzarretan parte hartu eta bertan egingo diren lanak egin.</li> <li>7. Azpikontratatzeko diren zerbitzuetan euskara bermatu.</li> <li>8. HParen baitan kokatuta dagoen HNPa ikastetxeren Plan Estrategikoaren barruan kokatu eta lehenetsunez hartu ikastetxeren izatearen oinarri dela ohartuz.</li> </ol> |

### Gurasoak eragin-esparrua (partaidetza, inplikazioa)

Atal honetan ez gara gurasoen motibazioaz edota hizkuntza gaitasunaz arituko. Gurasoek ikastetxearen antolakuntza organoetan eta normalizazioaren egitekoan duten parte-hartzeaz baizik.

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |  |
|---|--|
| HELBURUA  | JARDUERA   |
| <b>Ikastetxeko Guraso Elkarteko kideak dinamizatzaila eta bultzatzaile izatea</b>               | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasturte hasieran Ikastetxeko Guraso Elkarteko ordezkariekin hitz egin eta Hizkuntza Normalizazioa Batzordea zer den adierazi eta parte hartzera gonbidatu.</li> <li>2. Ikastetxeko Guraso-Elkartean parte hartzen duten gurasoen artean Normalizazioa Batzorderako ordezkaria(k) izendatu.</li> <li>3. Planaren eta ekintzen aurkezpena azaldu.</li> <li>4. Ikastetxeko Guraso-Elkarteko gurasoei dagokien arloan helburu zehatzak aurkeztu</li> <li>5. Gurasoen aldetik jardueren arduradunak izendatu.</li> <li>6. Guraso Batzordea Hizkuntza Normalizazioa Batzordearekin sistematikoki bildu jarritako helburu zehatzei buruz lan egiteko.</li> <li>7. Ikastetxeko Guraso-Elkartean dauden gurasoek Hizkuntza Normalizazioa Batzordeak hartzen dituen erabakiak onartu eta horiei babes eman.</li> <li>8. Guraso eta irakasleen arteko harremanak estutu euskara bultzatzen duen ekintza desberdinen bidez (<i>monitoreak kontratatuzko, mahai-inguruak, tailerrak, hitzaldiak, jolasak, kantak...</i>)</li> </ol> |
| <b>Gurasoek euskararen inguruan antolatzen diren ekintzetan era aktibo batean parte hartzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasturte hasierako Ikastetxeko Guraso-Elkarteko bileretan proposatutako helburuen eta burutuko diren ekintzen berri emateko dokumentu bat prestatu.</li> <li>2. Ikastetxeko zeregin desberdinetan, ahal izan ezker, Ikastetxeko Guraso-Elkartean aldetik arduradun euskaldunak jarri.</li> <li>3. Ikastetxeko Guraso-Elkartetik ekintzetan laguntzeko gurasoen artean bolondresak eskatu.</li> <li>4. Kirol eta eskolaz kanpoko ekintzetan inplikatzeko guraso euskaldunen zerrenda idatzi.</li> <li>5. Eskolan, euskal kulturaren inguruan burutzen diren ekintzak, Ikastetxeko Guraso-Elkartearekin batera antolatu: Gabonak, Olentzero, Euskara eguna, Agate deuna, Aratusteak,...</li> </ol>  |

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
|   | <p>6. Ikastetxeko Guraso-Elkarteak ekintza jakin batzuen ardura izan: koloniak, euskal jaia, gabonak, inauteriak...</p> <p>7. Ikastetxeko Guraso Elkartetik eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bideratu: margotzea, olgetan, ikas eta jolas, informatika, ...</p>   |
| <p><b>Euskararen normalizazioa lantzeko urratsen eztabaida eta erabakietan guraso ordezkarien parte hartzea esanguratsuago izan dadin aukerak ematea.</b></p> | <p>1. Euskararen barne eleaniztasunerako plangintza proposamena guraso/tutore batzordeari aurkeztu eta euren ekarpenak jaso.</p> <p>2. Guraso etorri berriei, azken urteetako etorkin familiei, euskal kulturaren berri eman.</p> <p>3. Ikasle etorri berrien integrazioa bultzatu, haien gurasoak euskarara hurbiltzearen bitartez: hitz egin eta Hizkuntza Normalizazioa Proiektua zer den adierazi.</p> <p>4. Ekimenak euskaraz egin: eskola kirola, gurasoen arteko bilerak, jaialdiak, Guraso Elkarteko ekintzak, tutorearekin bilerak...</p> <p>5. Gurasoen normalizazioa ordezkariarekin akordio batzuetara heldu: jaietan parte hartu, interesgarriak diren ekintzekin tauloi bat ipini, umeen klaseetara ipuinak kontatzeko edo lanbideak azaltzeko. gurasoren bat joan.</p> |

### Zuzendaritza eragin-esparrua

Atal honetan ez gara zuzendaritza-taldekideen motibazioaz edota hizkuntza gaitasunaz arituko. Zuzendaritzak ikastetxearen antolakuntzan eta normalizazioaren egitekoan duen parte-hartzeaz baizik. Zuzendaria bera, idazkaria eta zuzendaritzako kide guztiak sartuko ditugu atal honetan.

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <p><b>Normalizazioa plangintzaren sustatzaile nagusia izatea.</b></p> | <p>1. 4 Urteko Proiektua eta Ikasturteko Planaren ekintzen balorazioa gogoan hartuz, plana eratu.</p> <p>2. Ikasturteko Planean Hizkuntza Normalizazioa Plana txertatzea: ikastetxeko klastroari plangintza azaldu, eztabaidatu eta onartu ondoren, ikasturteko planean plangintza txertatu.</p> <p>3. Hizkuntza Normalizazioa Batzordeari ikasturtearen hasieran batzartzeko ordu kopuru eta ordutegi komuna eman.</p> <p>4. Klaustrokide guztion artean dokumentu guztiak zehatz-mehatz aztertu eta onartu.</p> <p>5. Irakasle eta ez irakasle berriei proiektuaren berri eman harrerako beste azalpenekin batera.</p> <p>6. Plangintzaren jarraipena egin.</p> <p>7. Proiektuetan (hizkuntza proiektua, curriculum, AJA, hezkuntza proiektua) Ikastetxearen dokumentu nagusi guztietan euskararen normalizazioaren ikuspuntua azaltzearen garrantziaz ohartarazi.</p> <p>8. Lanpostuen balorazio prozesuan Zuzendaritza taldeko kideak aukeratzekoan hitzun aktibo izatearen irizpidea ezarri.</p> <p>9. Zuzendaritzaren agerraldi, aurkezpenetan edo ekitaldietan (Ikasleen harrera, irakasle berrien harrera, sari-banaketak, ikasleen agurra...) euskararen agerpena alde aurretik kontutan hartu. Talde osoa euskalduna bada, agerraldia euskara hutsean egiten saiatu.</p> <p>10. HNPa ikastetxean duen eragina klastroari eta gurasoei jakinarazi eta aurrera eramaten den egiaztatu.</p> <p>11. Etengabeko eta hastapeneko prestakuntzan, euskarazko ikastaroen zerrenda eskaini eta animatu.</p> <p>12. Euskara dakiten gurasoei euskaraz egin, eta, ez dakitenekin euskararen presentzia adierazi.</p> <p>13. Hezkuntzari lotutako beste erakundeekin beti euskaraz zuzendu.</p> <p>14. Kontratututako zerbitzuetarako, bai kanpo ekintzetarako, bai barruko ekintza edo jardueratarako aukeran egonez gero, euskaldunak hobetsi.</p> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
|  | 15. Udalak antolatzen dituen laguntza ikastaroetan ikasleak eta haien familiak parte hartzera animatu.  |
| <b>Zuzendaritza taldekoek ikastetxeko batzar desberdinetan (OOG, BP, IGE) euskararen presentzia areagotzea.</b>            | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kurtso hasierako klaustroan Hizkuntza Normalizazioa Planaren garrantzia azpimarratu eta denen inplikazioa eskatu.</li> <li>2. Klaustroak, bilerak... euskaraz egin eta bilera deialdiak eta aktak euskaraz idatzi.</li> <li>3. Batzorde Pedagogikoan Hizkuntza Normalizazioa Batzordearen proposamenak eta ekimenak aurkeztu</li> <li>4. Hizkuntz irizpideak adostu</li> <li>5. Batzar guztiak euskaraz egin: batzarrak, klaustroak, koordinaketak, eta batzordeen bilerak.</li> <li>6. Gurasoekin egiten diren bileretan euskararen erabilera ziurtatu.</li> </ol>   |
| <b>HNP bultzatzen, garatzen eta egonkortzen jarraitzeko ikastetxean zuzendaritzaren inplikazioa mantendu eta sendotzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Prestakuntza-ziklo guztietako eta zuzendaritzako ordezkariaren partaidetza ziurtatuz HNB martxan jarri.</li> <li>2. Zuzendaritza normalizazioaren dinamikan inplikatu.</li> <li>3. Planteatutako helburuak zabaldu eta betetzen direla ziurtatu.</li> <li>4. Hizkuntza Normalizazioa Arduradun Teknikoa eta Zuzendaritzaren artean harremana etengabea izan.</li> <li>5. Hiru hilabetearen behin, Ikastetxeko HNParen jarraipena eta balorazioa egiteko zuzendaria HNATarekin bildu.</li> <li>6. HNBtik jasotzen diren proposamenak BPan aztertu eta dagozkien forotara bideratu.</li> <li>7. Zuzendaritza Taldeak HNBarri baliabideak eman: pertsonak eta denbora planifikatzeko, jarduteko, klaustroari jakinarazpenak egiteko astia, tokia eta aurrekontuak eman.</li> </ol> |
| <b>Zuzendaritza taldearen eta Administrazio langileen arteko harremanetan euskararen presentzia areagotzea.</b>            | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Nahi baduzu, nirekin euskaraz" bezalako esaldia duten informazio-txartelak ezarri langileen mahaietan euskararen komunikazioa ziurtatzeko.</li> <li>2. Administrazio eta funtzionamendu organoetako partaideei euskaraz aritzeko gaitasuna eskatu.</li> <li>3. Administrazioarekiko harreman idatzia gutxienez elebitan izan.</li> <li>4. Prestakuntza eta antolaketa jarduerak antolatu.</li> <li>5. Hedabideetan jarritako iragarkietan eskaintza elebiduna dugula argi eta garbi aipatu.</li> <li>6. Egiten diren langileen kontratazio berrietan euskararen ezaguera (EGA edo 2.HE) bermatu.</li> </ol>  |

### Dokumentu administratiboak, ekonomia eragin-esparrua

Administrazio eta ekonomiari buruzko dokumentuetan hizkuntza-irizpideak erabaki behar dira.

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Administrazio eta ekonomia agiriak euskara hutsezkoak izan daitezzen saiatzea, edota elebidunak</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Dokumentuak berrikusi eta eguneratu.</li> <li>2. Idazkaritza eta administrazioetik ateratako ikastetxeko barne eta kanpoko funtzionamendurako egiten diren idazkiak euskaraz ere sortu.</li> <li>3. Ikastetxean bertan, administrazio eta ekonomia agiriak euskara hutsean sortu.</li> <li>4. Dokumentuak euskaraz sortzeko beharrezkoak izango diren baliabideak martxan jarri eta gazteleraz daudenak euskara itzuli.</li> <li>5. Ikastetxez kanpo sortu eta guri bidalitako administrazio eta ekonomia agiriak euskara hutsezkoak izatea eskatu, edo, ezinezkoa denean, elebidunak.</li> <li>6. Diru-kontuak eramateko euskaraz dagoen programa erabili.</li> <li>7. Ohiko fakturak zein beste edozein motatako paperak eta egiterakoan euskaraz aritu.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK                                   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
|   | <ol style="list-style-type: none"> <li>8. Langileen nominak euskaraz ala elebietan eman ahal izatea.</li> <li>9. Gurasoei ordainagiriak elebidun bidali.</li> <li>10. Herri Administrazioari bidaliko zaizkion dokumentuak euskaraz bakarrik idatzi, beste kasuetan elebitan izango dira, beti euskararen presentzia bermatuz.</li> </ol>   |
| <b>Orain arte sortutako agiriak euskaratzen joatea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bulegoetan erabiltzen diren inprimakiak eta agiriak identifikatu eta aztertu.</li> <li>2. Egunero erabiltzen ditugun dokumentuen jarraipena egin (ez-etortze agiriak, hutsegite agiriak, oharrak...).</li> <li>3. Irakasle, ikasle edo ikasle ohiei ematen zaizkien ziurtagiri ofizialak ele-bietan egon daitezela ziurtatu.</li> <li>4. Kudeaketa sisteman euskararen agerpena eta kalitatea neurtu eta dauden hutsuneak konpondu.</li> <li>5. Sortzen edo digitalizatzen diren inprimaki eta agirietan euskarari lehentasuna eman.</li> </ol> |

### Jakinarazpenak eragin-esparrua

Gurasoei, irakasleei edo ikasleei bidaltzen zaizkien jakinarazpenetan hizkuntza-irizpideak erabaki behar dira.

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |  |
|---|--|
| HELBURUA  | JARDUERA   |
| <b>Euskararen presentzia bermatzea esparru guztietan.</b>                                   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Jakinarazpenen hizkuntza zein izango den zehaztu: Irakasleei euskaraz, familiei euskaraz /elebitan.</li> <li>2. Artxibategiko jakinarazpenak birpasatu eta euskaraz daudela egiaztatu.</li> <li>3. Ekoizten ditugun jakinarazpen guztiak euskaraz/elebietan izan.</li> <li>4. Barne komunikaziorako euskara erabili.</li> <li>5. Ikastetxe barneko informazioa euskaraz idatzi eta horrela luzatu irakasleei: klaustroko aktak eta deialdiak, oharrak...</li> <li>6. Tutoreek/irakasleek gurasoei zuzendutako oharrak idazterakoan, gurasoen hizkuntza jatorria kontutan izan, posible den heinean euskaraz zuzenduz.</li> <li>7. Etxeetara bidaltzen den euskara hutsean ohar kopurua handitu.</li> <li>8. Guraso erdaldunei ohar sinpleak euskara hutsez bidali. (Aldez aurretik bileretan guztia jakinarazi)</li> <li>9. Gurasoei ikasturte hasieran ematen zaizkien txostenak euskaraz edota elebietan egiten jarraitu.</li> </ol> |
| <b>Barne komunikazioetako sistemetan euskararen agerpena sustatzea</b>                      | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Dokumentazio-kudeatzaile berria ezartzen denean euskararen agerpena ziurtatu.</li> <li>2. Intranetean euskararen erabilera bultzatu.</li> <li>3. Intranetean sortzen diren espazio, gunee edo karpeten izenak euskaraz ipini.</li> </ol>   |
| <b>Edozein formatuetan plazaratzen diren dokumentuetako euskararen kalitatea bermatzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Idazten dena euskaraz idatzi zuzenean eta era egokian.</li> <li>2. Informazioa gainbegiratu eta zuzendu.</li> <li>3. "Galbahea" izeneko zerbitzua kudeatu, gurasoenganako idazkietan, kortxoetan iragartzen dena, edota webgunean eskegitzen den idazkietan euskara hobetzeko.</li> <li>4. Posta elektronikoaren informazioa zaindu.</li> </ol>  |

## Mediateka eragin-esparrua

Liburutegiaren eta mediatekaren hizkuntza-trataera eta softwarerekiko hizkuntza-irizpideak.

| <b>HN IKASTURTEKO PLANAK</b>  |  |
|---|--|
| <b>HELBURUA</b>   | <b>JARDUERA</b>  |
| <b>Mediateka hornitzeko euskal kulturaren irizpidea erabili.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gela bakoitzean behar diren baliabide minimoak zein diren finkatu.</li> <li>2. Gela bakoitzeko materiala aztertu eta zerrendatu.</li> <li>3. Materiala hautatu aurretik, euskarazkorik den eta kalitate minimorik duen aztertu.</li> <li>4. Erositako materiala era sistematizatuan erabili.</li> <li>5. Euskara eta euskal kulturaren inguruko materiala antolatu.</li> <li>6. Euskaraz dauden aldizkarien harpidetza mantendu.</li> <li>7. Euskal kulturaren inguruan euskaraz ateratzen den materiala guztiaren berri izan.</li> <li>8. Euskara eta euskal kulturaren mediateka hornitu (idatziak, irudiak, bideoak, filmak, DVDak, entzumenezkoak...), bere ezaguera eta erabilera erraztuz.</li> </ol>  |
| <b>Liburutegian diren euskarazko materialak zerrendatzea eta, oinarri horretatik hasita, gaur egungo materialak ugaritzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasleengan euskarri desberdinetako irakurzaletasuna suspertzeko baldintza egokiak sortzeko material egokiaz liburutegia hornitu.</li> <li>2. Irakasle guztion artean argitalpenak aztertu, interesak eta beharrak partekatu, eta behar diren erosketak egin.</li> <li>3. Iristen den materialarekin hilero zerrenda bat egin eta gero ziklo guztietan zabaldu erosi behar dena erosteko</li> <li>4. Euskaraz sortutako material berria (liburu, aldizkariak, ...) euskararen kalitatea begiratzuz erosi.</li> <li>5. Liburuzainarekin elkar-lanean aritu informazio guztia euskaraz ere egon dadin.</li> <li>6. Liburutegiko materiala eta bertan jartzen diren oharrak euskaraz ere agertu.</li> <li>7. Ikastetxeko mediateka ikasleen ahozketasuna eta euskaraz komunikatzeko gaitasuna lantzeko materialez osatu.</li> <li>8. Irakasle zein ikasleei euskaraz dauden baliabide digital, ikus-entzunezko eta paperezkoen berri eman eta euren eskura jarri.</li> <li>9. Liburutegiko dokumentazioa (web orria, aldizkaria, oharrak, esku-orriak...) sortzeko hizkuntza eta maketazio irizpideen gaineko erabakia klaustroari aurkeztu.</li> </ol> |
| <b>Ordenagailuetako softwarea euskaratzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Intraneta euskaraz izan.</li> <li>2. Ordenagailuetan sistema eragileak eta programak euskaraz jarri.</li> </ol>  |
| <b>Baliabide digitalak aukeratzekoan, euskarazkoak lehenestea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Interneten sartzen direnean euskararen erabilera sustatu, euskarazko bilatzaileak eta kudeatzaileak ezagutzuz eta erabilera bultzatuz.</li> <li>2. Sarean dauden baliabideak aztertu eta euskaraz lan egiteko aukera ematen dutenak aukeratu.</li> <li>3. Euskarazko web orri interesgarriak, gaika sailkatuz, aurkeztu eta sarean ipini</li> <li>4. Euskaraz dauden baliabide digitalen bilduma egin eta informazioa trukatu: euskarazko filmak, musika, CD-Romak, web guneak...</li> <li>5. Web orriko edukiak euskaraz ere ipini eta bertan normalizazioari buruzko informazioa eman.</li> <li>6. Euskarazko materiala zerrendatu eta ordenagailuetan karpeta bat sortu, irakasle guztion eskura egoteko.</li> <li>7. Eremu honetarako prestakuntza edo trebatze jarduerak euskaraz antolatu.</li> </ol>  |

## Espazioaren hizkuntza-antolaketa, hizkuntza paisaia eragin-esparrua

Hizkuntza-paisaiari dagozkion hizkuntza-irizpideak: errotulazioa, horma-irudiak... Baita ikastetxeko espazioen hizkuntza-antolaketarako irizpideak ere.

| <b>HN IKASTURTEKO PLANAK</b>  |  |
|---|--|
| <b>HELBURUA</b>   | <b>JARDUERA</b>  |
| <b>Espazioa komunen funtzio pedagogikoaren hausnarketa egitea, espazio bakoitzaren hizkuntza identifikatzea eta haren erabilera zehaztea.</b>                   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Espazio bakoitzak duen funtzioaren arabera hizkuntza irizpideak proposatu, adostu eta Hizkuntza Proiektuan txertatu.</li> <li>2. Departamendu buruekin bilera bat egin eta espazioak idatzitako irizpideen arabera antolatu.</li> <li>3. Hizkuntza bakoitzari dagokion atala bereizi.</li> <li>4. Espazio bakoitzean dagokion hizkuntza erabilera bermatzen dela ziurtatu.</li> <li>5. Ikasgela barruan hizkuntza bakoitzaren espazioa ondo definitu, euskarari lehentasuna eman.</li> <li>6. Pasabideetan euskararen aldeko aldarrikapenak jarri.</li> <li>7. Pasillo eta sarrerako mezuak, kartelak, oharrak... euskaraz eta ondo idatzita daudela zaindu.</li> <li>8. Euskal giroa presente egin ikastetxeko paisaian, horretarako urteko zenbait une aprobetxatu: Udazkena, Gabonak, Baserritarren eguna, Korrika...</li> <li>9. Idazkaritza zein atezaintzakoekin espazio irizpideri buruzko bilera egin.</li> </ol>  |
| <b>Ikastetxeko gela guztiak elebrietan gutxienez, eta hainbat euskara hutsean daudela ziurtatzea.</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Informazio aldakorrari dagozkion irizpideak ezarri, euskaraz jarrita dauden eta ez baleude jarri.</li> <li>2. Gelako espazioaren banaketarako irizpideen zerrenda osatu eta erabili.</li> <li>3. Ikastetxeko gela, esparru eta guneeetako izenak aztertu.</li> <li>4. Ikasle eta irakasleentzat diren oharrak hormetan euskaraz zintzilikatu.</li> <li>5. Ofizialak diren kartelak euskaraz eskegi.</li> </ol>   |
| <b>Hizkuntza paisaian dauden errotulazioa, oharrak, kartelak, horma-irudiak, lan artistikoak... euskaraz jarri direla aztertzea eta zaintzea</b>                | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Errotulazioari dagozkion irizpideak ezarri, euskaraz jarrita dauden ikusi eta ez baleude jarri.</li> <li>2. Pasabideko kartelak, pantailak, horma-irudiak eta abar beti euskaraz ager daitezen zaindu.</li> <li>3. Tailerretan segurtasun arauak eta tresnen erabilpen arauak jadanik euskaraz jarri direla konprobatu.</li> <li>4. Prentsa txokoaren erabilera areagotu, bertarako materialak eguneratu eta etengabe elikatu.</li> <li>5. Ikasleei zuzendutako jantoki inguruko informazioa, txartelak, menuak, txostentxoak eta abarrekoak euskaraz idatzita daudela baieztatu.</li> <li>6. Eguneko menua, eguneko platera, dastamen menuaren karta bezeroei euskaraz aurkeztu.</li> <li>7. Udalak jarri dituen segurtasun kartelak, idazki zein bestelako ekimenen bidez, erdara hutsean instalatu diren txartelak eta, euskaraz ipin ditzaten eskatu.</li> <li>8. Erakunde sindikaletatik heltzen zaizkigun dokumentazio eta oharrak euskaraz eskegi direla ziurtatu.</li> </ol> |
| <b>Ikastetxeko iragarki tauletako informazio kudeaketan irizpide eta erabilera normalizatzailea areago dadin beharrezko jokabide egokitzapenak erabakitzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxeko iragarki tauletako informazio kudeaketarako irizpideak zerrendatu eta adostu.</li> <li>2. Taula baitako informazio antolamendua berrikusi.</li> <li>3. Informazio mota desberdinek iragarki tauletan irauteko izango luketen iraungitze epea zehaztu.</li> <li>4. Erabakien berri klustroan eta eskola kontseiluan aipatu.</li> <li>5. Ikastetxeko langile guztiek eraikinean informazioa jartzeko irizpideak ezagutu.</li> <li>6. Jantokiko hormetako iragarki taulan euskarazko izena duten jakien irudiz hornitu.</li> <li>7. Idazkaritza aurreko ohar- taulan informazio eta argibide guztiak euskaraz jarri.</li> </ol>   |

## Hizkuntza Normalizaziorako egitura eragin-esparrua

Hizkuntza-normalizazioa aurrera eramateko egitura eta baldintzak: HN batzordea, osaera, dedikazioak, bilerak, funtzionamendu moldea, HNATaren izaera, dedikazioak, funtzioak...

| <b>HN IKASTURTEKO PLANAK</b>                        |  |
|---|--|
| <b>HELBURUA</b>                                     | <b>JARDUERA</b>  |
| <b>Hizkuntza Normalizazioa Batzordea sendotzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. HNBko kide berdinekin jarraitzeko proposamena egin eta gonbidapena luzatu.</li> <li>2. HNBko kideen funtzionamendua berraztertu: arduradunaren funtzioak, batzordearen osaketa eta funtzioak...</li> <li>3. Hizkuntza Normalizazioa Batzordean ziklo guztietako partaideak izan.</li> <li>4. HNBko partaideen artean zereginen banaketa egin, lana arintzeko eta errazteko.</li> <li>5. HNB, Zuzendaritza, Ikasle Batzorde eta Proiektuen arduradunekin koordinatu.</li> <li>6. Guraso gehiago izatea Batzordean.</li> </ol>   |
| <b>HNATaren lana zehaztea eta bultzatzea</b>        | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Arduradunaren funtzioak eta ezaugarriak zehaztu eta adostu.</li> <li>2. Astean dagokion ordu dedikazioarekin astero elkartzeko aukera emanez HNAT bat izendatu.</li> <li>3. Antolatutako ekintzen berri eman.</li> <li>4. Jarritako helburuen jarraipena egin, noizean behineko bileren bitartez, orokorrak zein arlokoak.</li> <li>5. HNBak Planaren jarraipena egin, aztertu eta proposamen berriak egin.</li> <li>6. Zikloko taldeekin batzarrak egin eta ekintzak antolatu.</li> <li>7. HNATA eta mintegiko buruek informazio guztia bere departamentuan zabaldu.</li> </ol> |
| <b>Ikasleen Batzordea sortzea</b>                   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasle Batzordearen ardurak zehaztu eta funtzionamendua ondo antolatu.</li> <li>2. Ikasleei gelaz gela Ulibarri programa zer den aurkeztu eta HNB-an parte hartzera gonbidatu.</li> <li>3. HNBaren proposamenak, betiere ikastetxeko helburuekin bat badatoz, aintzat hartu eta, ahal bada, gauzatu.</li> <li>4. Ikastetxeko HNBarekin duen koordinazioa hobetu.</li> <li>5. Jolastorduak eskaintzen duen tartea bilerak egiteko erabili.</li> <li>6. DBH osatzen duten ikasleen Gela-argazkia egin.</li> </ol>  |



## 1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak esparrua

Multzo honetan ikastetxeko dokumentu nagusiak aztertzen dira. Horietan biltzen da hizkuntza-normalizaziorako erabakiak zein neurritan jasotzen diren ikastetxean.

Esparru honetako eragin-esparruak hauexek dira: Hezkuntza proiektua, Curriculum proiektua, Hizkuntza proiektua, Antolamenduan Jarduteko Araudia, ikastetxeko kudeaketa plana, aurrekontua, urteko memoria, bestelakoak. Lau ikasturtean behin, Hizkuntza Normalizazio Proiektua egiten da esparru honetarako, eragin-esparruak aintzat hartuz.

| HN PROIEKTUA (2014-18) Helburu zehatzak |  |
|---|--|
| -                                       | Ikastetxeko hezkuntza-proiektua eta normalizazio-proiektuaren arteko loturak egitea.   |
| -                                       | Hezkuntza-komunitatean azken lau urtetan gertatutako aldaketen berri (Brankaren bidez azaleratu direnak) OOGra zabaltzea.  |
| -                                       | Aurreko aldaketen arabera, ikastetxeko hezkuntza-proiektuari dagozkion aldaketak gehitzea.   |
| -                                       | Hezkuntza-komunitateari irudikatuta dugun komunikazio-planari jarraiki, batetik, azken lau urteko lorpen eta galeren berri eman, eta, bestetik, hurrengo lau ikasturteko egin-bideen azalpenak ematea.   |
| -                                       | Lau urteko epean agertutako aldaketen gaineko hizkuntza-irakasleen arteko hausnarketa-ondorioak egitea   |
| -                                       | Diagnosi tresna ezberdinek emandako emaitzetan oinarriturik, hizkuntza premiak HN Pan eta IHiPan txertatzea: <i>Ebaluazio diagnostikoan euskara-erdaren emaitzak ikusirik beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak urtero egokitu, gela-argazkia deritzen tresnak ematen dituen emaitzak ebaluazio-diagnostikoko emaitzak interpretatzeko baliatu, urteko hobekuntza-plana eta normalizazioa planeko helburuak eta jarduerak bateratu, irakurketa-plana diseinatu (zer, nork, norekin, zenbat).</i> |
| -                                       | Lau urterik behin Branka diagnosiak emandako emaitzetan oinarrituta Ikastetxeko Normalizazio Proiektua eta Hizkuntza Proiektua berrikustea: <i>Erabilera ez formalaren neurketen emaitzetan oinarrituta, erregistro ez formalen lanketarako guneak eta arduradunak izendatu</i>  |

Ikastetxeak bere diagnosian antzemandako beharriaz erreparatuz, ikasturtez ikasturte, 4 urtean betetzeko helburuak, esparruz esparru zehazten ditu. Horrela, ikasturte batean egingarriak diren jarduerak diseinatu, ikasturte horretako helburu zehatzak nola beteko dituen agertzen du. Ikasturte bakoitzean idatzi behar den Ikasturteko Planaren adibideak eragin-esparruka ikusiko ditugu.

| Ikasturte bateko plana          |          |                      |          |      |      |              |
|---------------------------------|----------|----------------------|----------|------|------|--------------|
| ERAGIN ESPARRUA                 | HELBURUA | EBALUAZIO ADIERAZLEA | JARDUERA | NORK | NOIZ | BALIA-BIDEAK |
| Hezkuntza proiektua             |          |                      |          |      |      |              |
| Curriculum proiektua            |          |                      |          |      |      |              |
| Hizkuntza proiektua             |          |                      |          |      |      |              |
| Antolamenduan jarduteko araudia |          |                      |          |      |      |              |
| Ikastetxeko kudeaketa plana     |          |                      |          |      |      |              |
| Aurrekontua                     |          |                      |          |      |      |              |

|                |  |  |  |  |  |  |
|----------------|--|--|--|--|--|--|
| Urteko memoria |  |  |  |  |  |  |
| Bestelakoak.   |  |  |  |  |  |  |

## Hezkuntza-proiektua eragin-esparrua

Otsailaren 19ko 1/1993 legeak, Euskal Eskola Publikoa arautzen duenak, 46. artikuluan, hezkuntza-proiektuak, gutxienez, jasoko dituen zehaztasunen artean honako hau ezartzen du: **“Euskararen erabileraren normalizazioa lortzera bideratutako jarraibideak”**.

Arau hori berretsiz, EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen 175/2007 dekretuaren arabera Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak **ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak jaso behar ditu eta horretarako euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriei eta premiei ere.** Dekretu hau aldatzen duen 97/2010 dekretuak atal hau bere horretan uzten du.

Hizkuntza Normalizazioa Ikasturteko Planaren atal honetan honako hau adieraziko dugu: **ikastetxe bezala zein neurri hartu nahi den ikasturte honetan, Hezkuntza Proiektuan, hizkuntza-normalizazioaren gainean, jasotakoa betetze aldera edota dokumentu horretan neurri berriak adoste aldera.**

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Hezkuntza Proiektuan Normalizazioak legez dagokion tokia eta gizarteak aitortzen dion garrantzia izatea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko ikaskuntza-prozesuaren hizkuntza irizpideak finkatu.</li> <li>2. Ikaslea, euskaraz hitz egiteaz gain, euskal kultura eta hizkuntza bere bizitzaren maila guztietan sustatuko dituen pertsona bat izateko gaitasunak eta trebetasunak izan ditzan bitartekoak eman.</li> <li>3. Hezkuntza Proiektuan "Euskal Kultura eta Euskara sustatzea", funtsezko ardatz moduan argiro agertu.</li> <li>4. Hezkuntza-komunitatea osoari (OOGan ordezkatuta dagoenari) begirako komunikazio-plana zehaztu.</li> </ol>  |
| <b>Hizkuntz Normalizazioa Proiektua Hezkuntza Proiektuan txertatzea.</b>                                       | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxeko hezkuntza proiektua berrikustean, hizkuntza normalizaziorako erabakiak txertatu.</li> <li>2. Hizkuntza Normalizazioa Proiektuaren egitasmoak ikastetxeko dokumentu ofizialetan txertatu eta zabaldu, 4 urteko plan estrategikoan oinarria izanik.</li> <li>3. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan irakaskuntzarako erabiltzen diren hizkuntzei emango zaien trataera jaso, euskara lehenetsiz.</li> <li>4. Ikasturteko planean leku propioa eman HNPKo ikasturteko planari.</li> <li>5. Ikasle etorri berrien hizkuntz trataera erabaki, murgiltze plana definitu eta hezkuntza proiektuan txertatu.</li> </ol> |
| <b>Hezkuntza Proiektuan Normalizazioaren helburu nagusiak jasotzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza proiektuan eta honen baitan dauden gainontzekoetan HN Batzordeak hartutako erabakiekin lotutako helburuak jaso.</li> <li>2. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren berrikusketan Hizkuntza Normalizazioaren helburuak lehenetsizkoen artean jaso.</li> <li>3. Ikastetxeak euskararen alde egiten duen apustua Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan argi islatu.</li> </ol>   |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Hezkuntza Proiektuan euskararen erabileraren normalizazioa bideratzeko jarraibideak zehaztea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza Proiektuan Ulibarri Proiektuari erreferentzi egin.</li> <li>2. Euskara ikastetxeko komunikazio hizkuntza izatea.</li> <li>3. Normalizazioa proiektuaren nondik norakoak Hezkuntza Proiektuan azaldu.</li> <li>4. HN kontuan hartzen duen ikastetxeko plan estrategikoa adostu.</li> <li>5. Hezkuntza proiektuaren berrikustean Normalizazioa sustatzeko erabakiak ere berrikusi eta sartu.</li> <li>6. Normalizazioa planean hartutako erabakiak, Hezkuntza Proiektuan eragina duten neurrian, bertan txertatu.</li> <li>7. Normalizazioa Batzordeak definitutako helburu estrategikoa Hezkuntza Proiektuko gainontzeko helburuekin batera adierazi.</li> <li>8. Hezkuntza Proiektuan ikastetxeak euskarari ematen dion garrantzia islatu.</li> </ol> |

### Curriculum-proiektua eragin-esparrua

EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duen 175/2007 dekretuaren 19. artikulua 2. puntuak<sup>ii</sup> honela dio: *Curriculum Proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarri eta premietara, eta ikastetxearen hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu behar du dekretu honen eranskinetan araututako curriculum; betiere, ikastetxeko hezkuntza-proiektua erreferentziatzat hartuta.* Artikulu beraren 3. puntuak Curriculum Proiektuak finkatu behar dituen gutxienezko alderdiak zehazterakoan, beste batzuen artean honakoak aipatzen ditu: *Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak.* Dekretu hau aldatzen duen 97/2010 dekretuak atal hauek bere horretan uzten ditu.

Hizkuntza Normalizazioa Ikasturteko Planaren atal honetan honako hau adieraziko dugu: **ikastetxe bezala zein neurri hartu nahi den ikasturte honetan, Curriculum Proiektuan, hizkuntza-normalizazioaren gainean jasotakoa betetze aldera edota dokumentu horretan neurri berriak adoste aldera.**

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Curriculum Proiektuan Normalizazioak legez dagokion tokia eta gizarteak aitortzen dion garrantzia izatea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Normalizazioa planean hartutako erabakiak, Curriculum-proiektuan eragina duten neurrian, bertan txertatu.</li> <li>- Batzorde pedagogikoaren bitartez mintegi guztietako programazioak berraztertze eta Normalizazioaren ikuspegia aintzat hartzeko konpromisoa lortu.</li> <li>- Eskola 2.0 programa Eskolako Curriculumean txertatzean ikastetxeko euskararen normalizazioa lehentasunezko helburu bezala ezarri.</li> <li>- Ikastetxeko ekintza guztiak (barnetegiak, irteerak, jaiak...) euskararen erabilera areagotzeko aprobetxatu.</li> <li>- Erabilera sustatzeko hizkuntzarekiko jarreraren lanketarako jarduerak curriculumean txertatu.</li> </ul> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <p><b>Euskal kulturaren ezagutza bermatzeko bideak finkatzea hurbileko testuingurutik hasita nazioarteko maila arte.</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasgai guztien curriculumean euskal hizkuntza eta kulturarekin zer ikusia duten ezagutzak agertzen direla ziurtatu, euskal izaerako pertsonai, gune, adierazpide eta gertakizunei lehentasuna emanez.</li> <li>- Etapaka aukerak aztertu eta kultur ondarea lantzeko irizpideak adostu ondoren, zikloka hiruhileko bakoitzerako ikasleekin egiteko, gutxienez, saio bat antolatu, egokien deritzogun arloko programazioan txertatuz.</li> <li>- Ikastetxeko Curriculumean euskarazko prentsaren ezagutza eta erabilera sustatzeko programazioa txertatzea.</li> <li>- Maila bakoitzean landuko den euskal inauterietako pertsonaia eta euskal artista erabaki eta programazioan jarri.</li> <li>- Dantzen eta abestien emanaldiak antolatu eta euskal giroa sortu</li> <li>- Musika curriculumean euskal kantak ikasteko tarte aurreikusia eta eskolan egiten diren jaietan ikasi dituzten abestiak aurkeztu.</li> </ul> |
| <p><b>Euskararen erabilera sustatzeko curriculumean eragingo duten erabakiak hartzea</b></p>                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>- "Komunikatzen ikasi" konpetentzia arlo guzietan txertatu.</li> <li>- Mintegi guztietako programazioetan hizkuntza komunikaziorako konpetentzia nola eta noiz landu behar den zehaztu. HNPK bultzatzen dituen hainbat ekintza Curriculumearen barruan proiektu lege txertatu: Bizkaieraren indarpena, Antzerkigintza eta Irratigintza.</li> <li>- Curriculumean ahozko zein idatzizko ulermena lantzeko jarduerak proposatu.</li> <li>- Testuliburuaren aukeraketarako hizkuntz irizpideak finkatu.</li> <li>- Euskararen egokitasunari dagozkion irizpideak adostu eta ikasleen ekoizpenak zuzentzeko irakasle guztiok berdinean erabili.</li> <li>- Ikasle etorkinen euskalduntze plangintzarako helburu, eduki eta bitartekoak ondo zehaztu, berrikusi eta planifikatu.</li> </ul>  |

## Hizkuntza-proiektua eragin-esparrua

EAE n Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum-a sortu eta ezartzen duen 175/2007 dekretuaren **18. artikuluan 1. puntuak**<sup>iii</sup> honela dio: *Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan.* Artikulu beraren **2. puntuan** dioenez *Ikastetxeek hezkuntza-proiektuaren barruan jasoko dute beren hizkuntza-proiektua.* Dekretu hau aldatzen duen 97/2010 dekretuak atal hauek bere horretan uzten ditu.

Hizkuntza Normalizazioa Ikasturteko Planaren atal honetan honako hau adieraziko dugu: **ikastetxe bezala zein neurri hartu nahi den ikasturte honetan, Hizkuntza Proiektuan hizkuntza-normalizazioaren gainean jasotakoa betetze aldera edota dokumentu horretan neurri berriak adoste aldera.**

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Hizkuntz Normalizazioa kontutan hartzen duen Hizkuntza Proiektu egokia egitea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- HNParent datuak eta ekintzak aintzat hartuz Hizkuntz Proiektua eraiki. Hizkuntza Proiektua lantzerakoan, Ulibarritik egindako lana azaltzea eta kontuan izatea.</li> <li>- Normalizazioa- proiektuaren helburuak Hizkuntza- proiektuan islatu. Hizkuntza Proiektuan Normalizazioak sortzen dituen ondorio onak eta eskakizunak agerian ipini.</li> <li>- Ikasturtean zehar Normalizazioa Prozesua garatzeagatik sorturiko ondorioak eta eskakizunak aztertu eta Hizkuntza Proiektuan txertatu edota egokitu.</li> </ul>   |
| <b>Normalizazio proiektua Ikastetxeko Hizkuntza Plangintza orokorrean txertatzea</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza normalizazio egitasmoa hezkuntza proiektuaren barruan txertatu.</li> <li>- Hizkuntza-proiektuan normalizaziorako erabakiak eta helburuak txertatu.</li> <li>- Normalizazioa Proiektua Ikastetxeko Hizkuntza Plangintzan txertatzeko neurriak, ekintzak adostu.</li> <li>- Normalizazioa Proiektua Ikastetxeko Hizkuntza Plangintzan txertatzeko ekintzak martxan jartzeko plangintza egin (ardura banaketa eta denboralizazioa).</li> </ul>   |
| <b>Euskara ardatza izanda, eleaniztasunaren egitasmoa aurrera eramatea</b>           | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarak nagusitasun estatusa gaztelerak ukipen-hizkuntzakoa eta ingelesak nazioarteko komunikaziokoa duen Hizkuntza Proiektua eraiki.</li> <li>- Hizkuntza proiektuan euskararen presentzia eta erabilera ziurtatu.</li> <li>- Gizarteak egiten dituen eskaerei erantzuteko behar diren egokitzapenak eginez, euskararen irakaskuntza lehentasun gisa agertuko duen Hizkuntza Proiektua garatu.</li> </ul>   |
| <b>Euskararen erregistro ezberdinak ezagutzea eta egoki erabiltzea</b>               | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskalkia zer den, zenbat diren eta noiz erabili azaldu eta landu.</li> <li>- Euskalkia nahiz estandarren erabilera irizpideak markatu, gai bakoitzean non eta zertarako erabiliko den zehaztu.</li> <li>- Arlo bakoitzean Unitate bakoitzak zein erabilera eskatzen duen zehaztu, erabakiak hartu eta dagokiona aplikatzen hasi.</li> </ul>  |
| <b>Arlo guztien curriculumean euskararen presentzia eta erabilera areagotzea</b>     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arlo guztietako irakasleak euskararen erabileran ereduak izan daitezzen sentsibilizatu.</li> <li>- Ikasleek egiten dituzten ekoizpenetan nahiz ahozko adierazpenetan irakasle guztiok behar diren zuzenketak egin.</li> <li>- Ikasgai guztietan hizkuntza komunikaziorako konpetentzia nola eta noiz landu behar den zehaztu eta ziklo bakoitzean lortu beharreko helburuak adostu.</li> <li>- Ikasgai guztietan euskararen erabilera ebaluazio irizpide izan.</li> <li>- Mintegi/ziklo bakoitzean euskarazko material didaktiko berria lortu edo sortu.</li> </ul> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Ikasleen artean ahozko erabilera landu eta sustatzea.</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturtean zehar ikasleek burutuko dituzten proiektuetan ahozko ekoizpenak txertatu.</li> <li>- Mintegi guztiek mailaka zehaztu ahozkoa lantzeko egingo dutena eta urteko planean eta mailako programazio laburraren barruan sartu.</li> <li>- Ikasleen ahozko gaitasuna lantzeko adostutako estrategiak metodologian txertatu zenbait egitura aukeratu eta landuz.</li> <li>- Lehen Hezkuntza osoan ikasleen ordutegi barruan ordubeteko saioak finkatuko dira bereziki, ahozkotasuna lantzeko.</li> <li>- Entzunaldi eta testu mota ezberdinak hautatu eta programazioan txertatu ikasleekin sistematikoki lantzeko ikasturtean zehar.</li> </ul> |
| <b>Ikasleengan hizkuntza kontzientzia sustatzea</b>          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrez finkatutako motibazio saioak maila jakinetan eman.</li> <li>- DBHn eduki soziolinguistikoak landu: euskararen egoera historian zehar aztertu eta euskara gutxitutako hizkuntza dela azaldu.</li> </ul>  |

## AJA eragin-esparrua

Antolamendu eta Jarduerako Arautegian<sup>iv</sup> (AJAn) agertzen diren erabakiak lotesleak eta betebeharrekoak dira. Dokumentu honetan agertzen diren zenbait erabaki Hezkuntza-proiektuko hizkuntza-proiektuan jasota daude; hots, ikaskuntza prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren, zer-nolako trataera izango duten egunerokotasunean, etab.

Arautegi honetan honelako erabakiak har daitezke:

- *Irakasleek eskubide osoa daukate barne bileretan (klaustro, mintegi, ziklo, batzorde...) haien euskalkian parte hartzeko.*
- *Ikasleek eskubide osoa daukate irakasleekin ikastetxean euskaraz eta soilik euskaraz hitz egiteko*
- *Gurasoek eskubide osoa daukate irakasleekin ikastetxean euskaraz eta soilik euskaraz hitz egiteko*
- *Zuzendaritzak, irakasleek, ikasleek, Guraso Elkarteak eta langile ez-irakasleek, eskubide osoa daukate ikastetxeko iragarki tauletan eskegitzea baimenduta daukaten dokumentazioa eta informazioa, euskaraz eta soilik euskaraz eskegitzeko.*
- *Irakasleek eskubide osoa daukate barne bileretako (mintegi, ziklo, batzorde...) dokumentazioa (aktak, deialdi, oharrak...) euskaraz eta soilik euskaraz sortzeko*

Horrenbestez, atal honetan aintzat hartu behar dugu Antolamendu eta Jarduerako Arautegian zein neurri hartu nahi diren hizkuntza-normalizazioaren gainean, ikasturte honetan, Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuetan jasotakoa betetze aldera edota neurri berriak adoste aldera. Hona hemen adibide batzuk:

| <b>HN IKASTURTEKO PLANAK</b>   |  |
|--|--|
| <b>HELBURUA</b>  | <b>JARDUERA</b>  |
| <b>Euskararen erabileraren inguruan adostutakoak bete eta betearaztea.</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturtearen hasieran hezkuntza komunitatearen partaide guztiei gogorarazi zein diren adostutako jokabideak (nori berea: irakasleei, gurasoei, ikasleei, langile ez irakasleei, hornitzaileei...).</li> <li>- Ikasturtean zehar, auto-erregulaziorako tresnak diseinatu eta erabili.</li> <li>- Ikasturtean zehar adostutakoa betetzen den ala ez baloratu.</li> <li>- Ikasturtearen bukaeran bete ez direnetan zergatik izan den eztabaidatu eta hurrengo ikasturterako konponbideak bilatu.</li> </ul> |
| <b>Euskararen erabileraren inguruan adostutakoak bizikidetzarekin lotzea.</b>                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Estamentu desberdinetan gogoeta egin, diziplina positiboaren aldeko neurriak adostu eta AJAn txertatu.</li> </ul>   |
| <b>Euskararen erabileraren inguruan adostutakoak betetzen ez direnean diziplina-prozedura positiboak ezartzea.</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen aldeko mezu positiboak landu.</li> <li>- Ikuspegi soziolinguistikoa eta ekologikoa erabili.</li> <li>- Diziplina neurri positiboak AJAn txertatu.</li> </ul>   |



## Ikastetxeko kudeaketa-planak eragin-esparrua (Kalitate plana barne)

Ikastetxeko Urteko Planak (IUPak) ikastetxe osoari eragiten dioten erabaki guztiak jaso behar ditu. Horregatik, hain zuzen, dokumentuak zalua izan behar du, eta eskola-elkarteko kide guztiek ezagunak izan behar dute, ikasturte horretarako ikastetxeak lehenetsi eta elkarte osoari alde edo moldez eragiten dioten helburuen berri jakin dezaten eta haiek gogoan har ditzaten.

Era berean, proiektu eta plan zehatzak ere egon litezke, eta haiek diseinu eta programazio jakinak izango dituzte. Bereziki nabarmendu nahi dugu zein garrantzitsua den, egitura orokor bat den aldetik, ikastetxeak urtebeteko aldian zer lortu nahi lukeen garbi definitzea.

Hortaz, hemen erabaki behar dugu zein neurri hartu nahi den dokumentu horretan hizkuntza-normalizazioaren inguruan jasotakoa betetze aldera edota dokumentu horretan neurri berriak adoste aldera. Adibide batzuk:

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Kalitate planaren urteko txostenean HNP txertatzea.</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalitatea arduradunak HN Batzordean parte hartu.</li> <li>- Kalitate Osoa proiektuaren dokumentuak euskaratu eta berriak euskaraz sortu.</li> <li>- Kalitateko lan esparruen %50ean hobekuntza planetan euskararen normalizazioari lotutako hobekuntza arloren bat jarri.</li> <li>- Prozesu Taldeek bete behar ditugun dokumentu-txantiloak euskaraz/elebietan sortu.</li> <li>- Langileak hautatu eta kontratatzean, irakasleak ez diren langileen euskara gaitasun egokia ezinbesteko baldintza dela ziurtatu.</li> <li>- Bai Hizkuntza Normalizazioa bai Hizkuntza proiektua EFQM kalitate programaren arabera prestatu eta garatu.</li> <li>- Kontrol eta egokitze jarduerak euskaraz eman.</li> <li>- Auditoretza emaitzak euskaraz aurkeztu.</li> </ul> |
| <b>Ikastetxean dagoen kudeaketarako urteko planean (PGA) Hizkuntza Normalizazioa Proiektua agertzea honen helburuak eta ekintzak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzeko.</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektu berriak egitean, Hizkuntza normalizazioko batzordearen iritziak kontutan hartu.</li> <li>- Langile berriak hartzerakoan euskara maila egokia eskatu.</li> <li>- Klaustroak HN plana onartu ondoren ikastetxeko kudeaketa planean txertatu.</li> <li>- HNPa plan estrategikoa txertatu eta prozesuen arabera kudeatu.</li> <li>- HNparen helburuak eta ekintzak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatu.</li> <li>- IKE, EGE eta NOLEGA diru-laguntzak eskatu eta jasotako kopuruaren diru justifikazioa ikasturte amaieran egin.</li> <li>- Jantokiko bazkalosteko monitoreen ordainketarako Gurasoen Elkartearen diru-laguntza gestionatu.</li> </ul>   |

## Aurrekontua eragin-esparrua

Zein aurrekontu aurreikusi da ikasturte horretan HN ekimenetarako? HN irizpiderik bada aurrekontuak finkatzeko garaian?

| HN IKASTURTEKO PLANAK |          |
|-----------------------|----------|
| HELBURUA              | JARDUERA |

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Hizkuntza Normalizazioako jardueren aurrekontua zehaztea.</b>                                  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hizkuntza Normalizazioak bere esparrua izan ikastetxeko aurrekontuetan.</li> <li>2. Ekonomia Batzordean aurrekontua zehaztu.</li> <li>3. Klaustroan, aurrekontua onartu.</li> <li>4. Eskola Kontseiluari aurrekontua eta horren memoria aurkeztu.</li> </ol>  |
| <b>Aurreikusitako ekintzen aurrekontua egitea</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskararen erabilera sustatzeko ekintza bereziak (Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, Euskal Astea,...) antolatzeke aurrekontua zehaztu.</li> <li>2. NOLEGA programatan (EGE, IKE, EGB, Aho Adierazmena) parte hartzeke aurrekontua egin</li> <li>3. Idazleak ikastetxean programan parte hartzeke aurrekontua egin</li> <li>4. Udalean aurkezteke Hizkuntza Normalizazioa garatzeko ekintzen aurrekontua egin.</li> </ol>            |
| <b>Aurreikusitako ekintzen justifikazioa egitea</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskararen erabilera sustatzeko ekintza bereziak (Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, Euskal Astea,...) antolatzeke gastuak justifikatu.</li> <li>2. NOLEGA programatan (EGE, IKE, EGB, Aho Adierazmena) parte hartzeke gastuak justifikatu.</li> <li>3. Idazleak ikastetxean programan parte hartzeke gastuak justifikatu.</li> <li>4. Udalean aurkezteke Hizkuntza Normalizazioa garatzeko ekintzen gastuak justifikatu.</li> </ol> |
| <b>Eskualdean edota beste ikastetxeekin batera egiten diren jardueren aurrekontuak bereiztea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Beste ikastetxeekin bilerak egin, jarduerak antolatu eta aurrekontua adostuz.</li> </ol>  |

### Urteko memoria eragin-esparrua

Zein neurri hartuko da ikasturte honetan dokumentu horretan jasotako neurriak gauzatzeko aldera eta zein irizpide ezarriko zaion dokumentu horri normalizazioaren ikuspegia ikasturte amaieran ondo jasota geratzeko helburuarekin.

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |  |
|---|--|
| HELBURUA  | JARDUERA   |
| <b>Ikastetxeko urteko memorian Hizkuntza Normalizazioako memoria jasotzea.</b>                            | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zuzendaritza eta HNBa bildu eta memoria adostu.</li> <li>2. HNATak klaustroari HN memoria azaldu eta ikastetxeko memorian txertatu.</li> <li>3. HN memoria Eskola Kontseiluan azaldu.</li> <li>4. HNB-ak memoriaren laburpena egin, alde positiboak eta iradokizunak bereizi.</li> <li>5. HN Memorian emaitzak kontuan hartu hurrengo ikasturteko hobekuntza plana egitean.</li> </ol> |
| <b>Hizkuntza Normalizazioaren urteko memoria osatzeko Zikloka balorazioak egin eta klaustroan adostea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Burutu diren jardueren ebaluazioa egin.</li> <li>2. Burutu ez diren ekintzen inguruko hausnarketa egin.</li> <li>3. HNBaren ebaluazioa egin.</li> <li>4. HNATaren balorazioa egin.</li> </ol>  |

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |  |
|---|--|
| HELBURUA  | JARDUERA   |
| <b>Ikasturteko Normalizazioa plana egiterakoan, aurreko ikasturteko memoria kontuan hartzea, hobekuntzarako tresna izateko.</b> | <ol style="list-style-type: none"><li>1. HN Proiektua 2010-14 kontuan izan.</li><li>2. Aurreko ikasturteko helburuak eta jarduerak aintzakotzat hartu, hobekuntzak aurreikusteko eta ezinezkoak baztertzeko.</li></ol> |

### 1.3. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak esparrua

Ikastetxeak dituen ohiko harremanetarako aurrez erabakita dituen Hizkuntza Normalizazioa irizpide orokorrak betetze aldera eragin-esparru bakoitzean ikasturterako jarritako helburuak zehaztuko dira. Esparru honetako eragin-esparruak hauexek dira: Ikastetxeak, Berritzegunea, Hezkuntza Administrazioa, Instituzioak, Elkarreak, Enpresak, Hornitzaileak. Lau ikasturtean behin, Hizkuntza Normalizazioa Proiektua egiten da esparru honetarako, eragin-esparruak aintzat hartuz.

| <b>HN PROIEKTUA (2014-18) Helburu zehatzak</b>  |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eremu instituzionalean euskararen presentzia/ezagutza eta erabilera indizeen arteko diferentzia % 10 baino txikiagoa dela ziurtatzea.</li> <li>- Ikastetxeak inguruko eragileekin dituen harremanetan euskararen ahozko zein idatzizko erabilerak presentzia/ezagutzaren indize berdina ziurtatzea.</li> <li>- Herriko edo inguruko ikastetxeekin ditugun harreman sistematikoetan euskararen ahozko erabilera indizeari eustea edo %5eko igoera lortzea.</li> <li>- Herriko edo inguruko ikastetxeekin ditugun harreman sistematikoetan euskararen idatzizko erabilera indizeari eustea edo %5eko igoera lortzea.</li> <li>- Berritzegunearekin ditugun harremanetan euskarazko erabilera indizeari eustea.</li> <li>- Berritzegunetik euskaraz jasotzen ditugun dokumentu idatzien kopuruak/ehuneakoak handitzea.</li> <li>- Hezkuntza-administrazioarekin ditugun harremanetan, diagnosian agertu zaizkigun indargune eta ahulezien araberako jarraibideak finkatzea.</li> <li>- Hezkuntza-administrazioarekin ditugun harremanetan euskararen ezagutza eta erabilera indizeen arteko oreka bilatzea.</li> <li>- Ikastetxea kokatuta dagoen testuinguruko ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, instituzioek (Kanpoko erakundeek) hezkuntza-komunitateko kideekin dituzten harremanetan eta, batez ere, ikasleentzat antolatzen dituzten jardueretan euskararen presentzia eta erabilera irizpideak ikastetxeko normalizazioa zein hizkuntza-proiektuaren helburuekin bateratzea.</li> <li>- Ikastetxeak eta beraren hurbileko elkarreak konpartitzen dituzten testuinguruko ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, ikastetxeko HNP eta herriko EBP/ESEP planen koordinaziorako (harremanetarako) hizkuntza irizpideak zehaztea, batik bat, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera indizean eragiteko.</li> <li>- Lanbide heziketako ikasleek, hala nahi izanez gero, dagokien espezialitateko praktikak inguruko enpresetan euskaraz egin ahal izateko eta harreman prozesuak euskaraz burutzeko, ikastetxea eta enpresen artean harreman irizpideak adostea.</li> <li>- Diagnosian agertu zaizkigun emaitzen arabera, hezkuntza-komunitateak dituen harreman-sare ekonomikoek euskararen ahozko zein idatzizko erabileran eragiteko aprobetxatzea, horretarako hornitzaileen tamainaren arabera eta ikastetxearen testuinguru hurbilean zein eskualde mailan jarraituko diren helburuak zehaztuko dira.</li> </ul> |

Ikastetxeak bere diagnosian antzemandako beharrezanezko erreparatuz, ikasturtez ikasturte, 4 urtean betetzeko helburuak, esparruz esparru zehazten ditu. Horrela, ikasturte batean egingarriak diren jarduerak diseinatuz, ikasturte horretako helburu zehatzak nola beteko dituen agertzen du.

| Ikasturte bateko plana        |          |                      |          |      |      |              |
|-------------------------------|----------|----------------------|----------|------|------|--------------|
| ERAGIN ESPARRUA               | HELBURUA | EBALUAZIO ADIERAZLEA | JARDUERA | NORK | NOIZ | BALIA-BIDEAK |
| Ikastetxeekin                 |          |                      |          |      |      |              |
| Berritzegunearekin            |          |                      |          |      |      |              |
| Hezkuntza Administrazioarekin |          |                      |          |      |      |              |
| Instituzioekin                |          |                      |          |      |      |              |
| Elkartekin                    |          |                      |          |      |      |              |
| Enpresekin                    |          |                      |          |      |      |              |
| Hornitzaileekin               |          |                      |          |      |      |              |

Kanpo harremanen esparrua aztertzeko eta bertako eragin-esparruetan helburuak, jarduerak motak eta dokumentu eredugarriak [www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info) orrialdeko [Dokumentu lagungarriak](#) deritzon orrian aurkitu daitezke honako izen hau duen dokumentuan.

#### Ikastetxeekin harremanetarako hizkuntza irizpideak eragin-esparrua

Herriko edo inguruko gainontzeko ikastetxeekin edota sarekoekin lanean aritzeko hizkuntza-irizpideak finkatu beharko dira.

Hemen helburu-jarduerak sekuentzia logiko batzuk eskaintzen dira, Hezkuntza estamentu honek Eskolako Hizkuntza Normalizazioan inplikazioa izateko.

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Herriko edo inguruko ikastetxeekin ditugun ohiko harremanak zeintzuk diren zehaztea.</b>      | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Epe bateko harremanak bildu.</li> <li>2. Mintza jardunaren arabera sailkatu.</li> <li>3. Mintza jardun bakoitzaren arabera erabilera neurtu.</li> </ol>  |
| <b>Inguruko beste ikastetxe eta irakasleekin erabiliko diren hizkuntza irizpideak finkatzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mintegika, programak edo ikastetxean betetzen dugun arduraren arabera gutxiengo hizkuntza-irizpideak definitu.</li> <li>2. Klaustrokide guztien artean irizpideak onartu.</li> <li>3. Irizpideon betetze mailaren urte beteko jarraipena egin.</li> <li>4. Aurkitutako zailtasun edo eragozpenak aztertu.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Euskal Herriko ikastetxeen arteko harremanak, ahozkoak zein idatziak, euskara hutsean izan daitezen ahalegintzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ahozkoan lehen hitza euskaraz egin.</li> <li>2. Ahozkoan erregistro jaso/formaletan euskaraz egin.</li> <li>3. Ahozkoan eskualdeko euskalkian, halakorik balego, egin.</li> <li>4. Ahozko erregistro jaso/formaletan esperientzien trukerako azalpenak eman.</li> <li>5. Idatzian erregistro informaliak darabilgun aztertu (e-mailak, blogak edo bestelako plataformak).</li> <li>6. Idatzian erregistro jaso-formalak zaindu.</li> <li>7. Idatzian erregistro jaso-formaletan idazki elebidunetan euskaren zatia lehenetsi.</li> <li>8. Idatzian erregistro jaso-formaletako idazki eredu zuzenak erabili.</li> <li>9. Idatzian erregistro jaso-formalean azalpen eta iritzi testuak idatzi.</li> </ol> |
| <b>Inguruko beste ikastetxe eta irakasleekin elkarlan sareak sortzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herri/inguru hurbil mailako ekintza konpartituak antolatu.</li> <li>2. Ikastetxeak bateratzen dituen gaietan adostasunak eta osagarritasunak bilatu.</li> <li>3. Herri/inguruko EBPN edo egitura baliokiderako hezkuntzako azpibatzerdea osatu.</li> <li>4. EBPN edo egitura baliokideko hezkuntza batzerdea bildu.</li> <li>5. Hezkuntza batzerde horretan herri/inguru hurbileko gai bateratuak landu (Korrika, euskalkia, bestelako kultura-ekimenetan ikastetxeen partaidetza,... ) .</li> </ol>  |

### Berritzegunearekin eragin-esparrua

Berritzeguneko zuzendaritzarekin edo bertako aholkulariekin ikastetxeak dituen harremanetarako hizkuntza-irizpideak.

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Berritzegunearekin ditugun harremanak eta hizkuntzaren erabilera aztertzea</b>     | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berritzeguneko urteko planean eskaintzen diren prestakuntza ikastaroen azterketa egin.</li> <li>2. Berritzegunean antolatzen diren mintegien azterketa egin.</li> <li>3. Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariaren euskaraz aritu gaitetzkeela ziurtatu.</li> <li>4. Berritzegunearekin ditugun proiektuen koordinaziorako aholkulariekin darabilgun hizkuntza (ahozkoa eta idatzia) zein den aztertu.</li> <li>5. Berritzeguneko aholkulariek klaustro mailako prestakuntza saioen hizkuntza erabilera aztertu.</li> <li>6. Hezkuntza premia berezietako aholkulariekin euskararen erabilera premiak aztertu.</li> </ol>  |
| <b>Berritzegunekoekin ditugun prestakuntza edo koordinazioetan euskara lehenestea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariari eta zuzendariari ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz nahi ditugula azaldu.</li> <li>2. Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariari eta zuzendariari ahozko eta idatzizko harremanetan geure premiei erantzun ahal izateko euskarazko ereduak behar ditugula adierazi.</li> <li>3. Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariari eta zuzendariari ahozko eta idatzizko harremanetan geure euskarazko prestakuntzarako eredu egokiak eskatu.</li> <li>4. Programa edo ildo berrietan Berritzeguneko aholkulariekin buruz buru elkarlanean aritu euskararen erabilera ziurta dadin.</li> <li>5. Hezkuntza Premia Bereziatarako aholkularien ataza propioak ezagutu.</li> <li>6. Hezkuntza Premia Bereziatarako aholkulariarekin buruz buru jardun hizkuntza zailtasunak elkarlanean gainditzeko.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Berritzegunearekin ditugun idatzizko harremanetan euskara lehenestea (aditu erdaldunak)</b>                             | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berritzegunetik datozkigun dokumentuak euskaraz izatea eskatu.</li> <li>2. Berritzeguneko bileren aktak euskaraz izan daitezen eskatu.</li> <li>3. Prestakuntza saioetan ematen dizkiguten dokumentu, idazki, apunte, artikulua edo erreferentzietan euskararen presentzia ziurtatu.</li> <li>4. Berritzeguneko aholkulariei erregistro jaso-formalen ereduak eskatu arlo edo mintegi guztietako diziplinatan.</li> <li>5. Kanpoko adituak ematen dituzten hitzaldi edo prestakuntzetan hizkuntza egokitzapena egiteko Berritzeguneko aholkulariari laguntza eskatu.</li> <li>6. Hezkuntza Premia Bereziakotako aholkulariarekin txostenak, diagnosi-ebaluazioak edota egokitzapen kurrikularrak euskaraz izatea eskatu.</li> </ol>   |
| <b>Berritzegunearen aterpean eskualdeko irakasle eta ikastetxeen arteko sareetan euskarazko jokabide proaktiboa izatea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskaraz antolatzen diren ekintzetan parte-hartzea bultzatu</li> <li>2. Erdaraz antolatzen diren ekintzetan euskara ziurta dadin eskatu</li> <li>3. Norberaren ikastetxeko ekarpenak euskaraz egin erregistro jaso-formalean</li> <li>4. Bguneko aholkulariek eskaini dizkiguten eredu egokiak (ahozkoak eta idatziak) bertako taldeetan erabili</li> <li>5. Norberaren ikastetxeko esperientzien azalpen grafiko-idatziak egin.</li> <li>6. Norberaren ikastetxeko esperientzien azalpenak besteen eskura jarri (zabaldu)</li> <li>7. Ikastetxe bakoitza hezkuntza-sistemaren zatia den heinean, euskararen normalizazioan arlo edo ildo berrietan (adib. Hezkuntza Premia Bereziakotako frogak zehatzen itzulpenak balidatzen edota arlo zehatz bateko dokumentazioa sortzen) parte hartu</li> <li>8. Berritzegunearen garatzen diren ekintzetan erregistro informala erabilerarako tarte edo unerik balego, ahozko harremanetan euskara (euskalkia) erabili</li> <li>9. Eskualdeko ikastetxeen artean euskararen normalizaziorako sortzen eta eraikitzen diren ekarpenen metaketa Berritzeguneko aholkulariek meta eta zabal dezaten eskatu</li> </ol> |

### Hezkuntza Administrazioarekin eragin-esparrua

Ordezkaritza, Ikuskaritza, edo beste edozein Hezkuntza-administrazioako organorekin dituen harremanetarako hizkuntza-irizpideak.

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Ikastetxeko hezkuntza-komunitateak Hezkuntzako administrazioaren zein atal eta zerbitzuekin ohiko harremanak dituen ezagutzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxearekin jarraikako harremanetan dauden hezkuntza administrazioaren atal eta zerbitzuak zerrendatu.</li> <li>2. Hezkuntza Administrazioaren ditugun ohiko harremanak aztertu honako irizpide hauen arabera: <ol style="list-style-type: none"> <li>a. <i>Agerbidea (media): hitz egin, irakurri edo idatzi</i></li> <li>b. <i>Zabalera (overtness): mezua jaso eta igorri</i></li> <li>c. <i>Situazioa: nori norekin diharduen hitzez edo idatziz, noiz-non, zertaz eta zertarako</i></li> </ol> </li> <li>3. Ikastetxea Hezkuntza Administrazioaren parte den heinean, lege-markoak zein eskubide eta zein betebeharrak ezartzen dizkigun ezagutu.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |   |
|--|---|
| HELBURUA   | JARDUERA  |
| <b>Ikastetxearekin ohiko harremanetan dauden Hezkuntza administrazioaren atal eta zerbitzuekin harremanetarako hizkuntza erabileraren irizpideak adostea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza-komunitateko kideei lege-markoak ezartzen dituen hizkuntza-erabilera irizpideak azaldu.</li> <li>2. Ikastetxeko hezkuntza komunitatean hezkuntza administrazioaren atal eta zerbitzuekiko harremanetan erabiliko diren hizkuntza-irizpideak zehaztu (zeinekin, zertarako, zein hizkuntza, zein agerbide).</li> <li>3. Ikastetxeko kideen artean nahiak eta erabakiak adostu.</li> <li>4. Hizkuntza irizpideak betetzeko eta betearazteko prozedura asertiboak ikasi.</li> </ol>   |
| <b>Ikastetxearekin ohiko harremanetan dauden atal eta zerbitzuekin euskaren ahozko erabilera bultzatzea.</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ahozko harremanak hastean lehen hitza euskara erabili.</li> <li>2. Errespetuz eta modu asertiboak erabiliz, euskaraz jardutea eskatu.</li> <li>3. Aurrekoa euskaraz jarduteko gai ez den kasuetan, gutxienez "egun on", "arratsalde on", "eskerrik asko" erabil ditzala eskatu.</li> <li>4. Aurrekoa euskaraz jarduteko gai denean, hala egitea eskatu.</li> <li>5. Norberak eskuartean darabilgun gaiaren inguruan ulermen/ekoizpen zailtasunak baditu, aurrekoari pazientzia eskatu.</li> <li>6. Aurrekoak eskuartean darabilgun gaiaren inguruan ulermen/ekoizpen zailtasunak baditu, norberak lagundu eta egiten duen ahalegina eskertu.</li> <li>7. Ikasturte amaieran ikastetxeko arduradunei (zuzendaritzako kideei) ahozko erabilerari buruzko balorazio orria eskatu.</li> </ol> |
| <b>Ikastetxearekin ohiko harremanetan dauden atal eta zerbitzuekin euskaren idatzizko erabilera bultzatzea</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Idazkaritza eta zuzendaritzako lankideei hilerok jasotzen diren dokumentuen bilketa egitea eskatu. Ikastetxean erdara hutsean jasotzen diren gutunei/dokumentuei euskarazko zatia eskatu.</li> <li>2. Ikastetxetik igortzen zaizkien dokumentuak euskaraz/elebrietan sortu. Beti euskarazko zatiari garrantzia gehiago emanez.</li> <li>3. Ikastetxeak ohikoak dituen testuen euskarazko ereduak hezkuntza-komunitateko kide guztien eskuragarri jarri.</li> <li>4. Zuzendaritza eta idazkaritzako lankideei hizkuntza aldaketarako laguntza/erreferentziak eskaini.</li> <li>5. Ikasturte amaieran ikastetxeko arduradunei (zuzendaritzako kideei) idatzizko erabilerari buruzko balorazio orria eskatu.</li> </ol>  |

### Instituzioekin eragin-esparrua

Ikastetxeak edozein instituzioarekin dituen harremanetarako hizkuntza-irizpideak: Jaurilaritza (Hezkuntza ez den beste Sailekin), Aldundia, Udala, Mankomunitatea, Federazioak...

| HN IKASTURTEKO PLANAK |          |
|-----------------------|----------|
| HELBURUA              | JARDUERA |



| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Ikastetxeko hezkuntza-komunitateak</b><br><b>Hezkuntza ez den beste Sailekin, Aldundia, Udala, Mankomunitatea edo Federazioekin dituen harremanak ezagutzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxearekin jarraikako harremanetan dauden instituzioak zerrendatu.</li> <li>2. Horiekin ditugun ohiko harremanen hizkuntza-erabilera aztertu, honako irizpide hauen arabera: <ol style="list-style-type: none"> <li>a. <i>Nork norekin diharduen hitzez edo idatziz, noiz-non, zertaz eta zertarako</i></li> <li>b. <i>Ikastetxearen hizkuntza normalizazioak lantzen duen helburua jakinaraztea.</i></li> <li>c. <i>Ikasleentzat eskola orduz barne zein eskolaz kanpoko ekintzetarako eskaintzen dituzten aukera guztien artean euskararen erabilera bultzatzeko zeintzuk izan daitezkeen aztertu.</i></li> </ol> </li> </ol>  |
| <b>Irakasleekin ohiko harremanetan dauden atal eta zerbitzuekin euskaren ahozko zein idatzizko erabilera bultzatzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gainerako eragin-esparruetan ohiko instituzioekin ditugun harremanetarako irizpideak adostu.</li> <li>2. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan aztertutako hutsuneak eta hartutako erabakiak errebisatu.</li> <li>3. Ohiko harremanetan gauden instituzioetako arduradunekin normalizazioa zein hizkuntza proiektuan hartutako erabakiak azaldu.</li> <li>4. Koordinazio eta informazio trukeetarako ahoz zein idatziz euskaraz jardun.</li> <li>5. Beharrezkoak diren idatzizko ereduak konpartitu.</li> <li>6. Instituzioak antolatutako ekintzen zabalkunderako jasotzen ditugun txostenak edo informazio-orriak gure ikasleen hizkuntza-premietara egokitu.</li> <li>7. Instituzioek bultzatutako ekimenen zabalkundera/aprobetxuamendua egin eskolaz barruko zein eskolaz kanpoko ekintzak izan.</li> <li>8. Instituzioek, bakoitzak bere arlo edo ekintzabideetan, garatutako materialak, argitalpenak edo normalizaziorako lagungarri diren materialak eskuratu.</li> </ol> |
| <b>Ikasleekin harremanetan dauden atal eta zerbitzuekin euskaren ahozko erabilera bultzatzea.</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gure ikasleen hizkuntza-eredua/gaitasunaren eta premien berri eman.</li> <li>2. Ikastaldearen hizkuntza-eredua/gaitasunaren araberrako eskaera egin.</li> <li>3. Ikastaldearen hizkuntza-eredua/gaitasunaren araberrako solaskideak eskatu.</li> <li>4. Ekintzaren araberrako hizkuntza-erregistroa erabil dezaten eskatu.</li> <li>5. Ahal eta komeni den kasuetan ahozkoan bertako euskalkian jardun.</li> </ol>  |

### Elkarteekin eragin-esparrua

Ikastetxeari edota ikasleei zuzenean zerbitzua ematen dieten elkarteekiko hizkuntza-irizpideak: Musika-eskola, Kirol-elkarteak, akademiak, hizkuntza-eskolak...

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Ikastetxeko hezkuntza-komunitatea</b><br><b>harremanetan dauden elkarteak ezagutzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxearekin jarraikako harremanetan dauden elkarteak zerrendatu.</li> <li>2. Elkarteekin ditugun ohiko harremanak aztertu honako irizpide hauek arabera: <ol style="list-style-type: none"> <li>a. <i>Agerbidea (media): hitz egin, irakurri edo idatzi</i></li> <li>b. <i>Zabalera (overtness): mezua jaso eta igorri</i></li> <li>c. <i>Situazioa: nork norekin diharduen hitzez edo idatziz, noiz-non, zertaz eta zertarako</i></li> </ol> </li> <li>3. Elkarte euskaldunen gida egin.</li> </ol> |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Ikastetxearekin ohiko harremanetan dauden elkarteekin hizkuntza erabileraren irizpideak adostea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza-komunitatean elkarteekiko harremanetan erabiliko diren hizkuntza-irizpideak zehaztu (zeinekin, zertarako, zein hizkuntza, zein agerbide)</li> <li>2. Aukeratutako elkarteei ikastetxeko nahiak eta erabakiak jakinarazi</li> <li>3. Aukeratutako elkarteei beharrezkoa duten hizkuntza aldaketarako laguntza/erreferentziak eskaini</li> <li>4. Ikastetxearen hizkuntza-hautua betetzen duten elkarteak aukeratu</li> <li>5. Harremanetan hastean lehen hitza euskara erabili</li> <li>6. Ikastetxetik igortzen zaizkien dokumentuak euskaraz/elebrietan sortu</li> <li>7. Ikastetxean erdara hutsean jasotzen diren gutunei/dokumentuei euskarazko zatia eskatu.</li> </ol> |
| <b>Ikastetxearekin ohiko harremanetan dauden elkarteekin euskaren erabilera bultzatzea</b>             | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herri edo inguruko normalizazioan (EBPNan) murgilduta dauden elkarteekin elkarguneak aurkitu.</li> <li>2. Elkarteak euskara plana eta HNParan arteko elkarguneetarako ekintzak zehaztu.</li> <li>3. Elkarteak eta ikastetxeko kideen arteko ekintzen jarraipena egin.</li> </ol>   |

#### 1.4. Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea esparrua

Esparru honetan elkarrekin aritzeko sortu diren guneak, koordinazio-moldeak, batzordeak... eta hauen helburuak, funtzionatu ahal izateko jarduerak, erabakiak, ea... zehaztuko dira. Koordinazio bide hauetatik bideratuko diren jarduerak, ekimenak..., aldiz, bakoitza dagokion esparru eta eragin esparruaren baitan jasoko da.

Esparru honetako eragin-esparruak hauexek dira: EBPN, Ikastetxeen arteko jarduerak , Herriko euskara-elkarteak, Bestelako elkarteak, Euskal komunikabideak, Bestelako eragin-esparruak.

Lau ikasturtean behin, **Hizkuntza Normalizazioa Proiektua** egiten da esparru honetarako, eragin-esparruak aintzat hartuz.

| HN PROIEKTUA (2014-18) Helburu zehatzak |   |
|---|---|
| -                                       | Ikastetxea EBPN-aren eragile izatea   |
| -                                       | Hizkuntzaren normalizazioan, herriko beste ikastetxeekin eta elkarteekin batera elkarlanean jardutea. |
| -                                       | Euskararen erabilera bultzatzea eremu informaletan  |
| -                                       | Euskal komunikabideen erabilera lehenestea.   |

Ikastetxeak bere diagnosian antzemandako beharriaz zehaztuz, ikasturtez ikasturte, 4 urtean betetzeko helburuak, esparruz esparru zehazten ditu. Horrela, ikasturte batean egingarriak diren jarduerak diseinatu, ikasturte horretako helburu zehatzak nola beteko dituen agertzen du.

Ikasturte bakoitzean idatzi behar den **Ikasturteko Planaren** adibideak eragin-esparruka ikusiko ditugu. Hemen, aplikazio informatikoaren bidez bete behar den txantiloia baino ez:

| Ikasturte bateko plana       |          |                      |          |      |      |              |
|------------------------------|----------|----------------------|----------|------|------|--------------|
| ERAGIN ESPARRUA              | HELBURUA | EBALUAZIO ADIERAZLEA | JARDUERA | NORK | NOIZ | BALIA-BIDEAK |
| EBPN                         |          |                      |          |      |      |              |
| Ikastetxeen arteko jarduerak |          |                      |          |      |      |              |
| Herriko euskara-elkarteak    |          |                      |          |      |      |              |
| Bestelako elkarteak          |          |                      |          |      |      |              |
| Euskal komunikabideak        |          |                      |          |      |      |              |
| Bestelako eragin-esparruak   |          |                      |          |      |      |              |

#### EBPN (Euskara biziberritzeko plan nagusia) eragin-esparrua

EBPNren baitan eskolak betetzen dituen funtzioak, loturak, koordinazio beharrak... ikasturte bakoitzari begira.

Hemen helburu-jarduerak sekuentzia logiko batzuk eskaintzen dira, Hezkuntza estamentu honek Eskolako Hizkuntza Normalizazioan inplikazioa izateko.

| HN IKASTURTEKO PLANAK |          |
|-----------------------|----------|
| HELBURUA              | JARDUERA |
|                       |          |

| HN IKASTURTEKO PLANAK   |   |
|---|---|
| HELBURUA  | JARDUERA  |
| <b>Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinazioan aritzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara Teknikariarekin bilerak egin, ikastetxeko plana azaldu eta udaletik antolatutako en berri izateko.</li> <li>2. Udaleko Euskara teknikariak bidalitako informazioa ikastetxean zabaldu.</li> <li>3. Herriko eta ikastetxeko normalizazio planak uztartu.</li> <li>4. Hizkuntza Normalizazioko Urteko Plana aurkeztu eta zenbait jardueretako diru-laguntza eskatu.</li> </ol>  |
| <b>Herriko Udaleko eragileekin elkarlanean aritzea, hizkuntzaren normalizazioan(EBPN ez dagoen kasuetan).</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Beste eragile batzuk proposatzen dituzten proposamenak aztertu, koordinatu eta parte hartu.</li> <li>2. Etorrinak euskalduntzeko egitasmoa Udalekoarekin bat egin. (1)</li> <li>3. Euskararen Egunerako antolatzen diren ekintzetan parte hartu.</li> <li>4. Euskararen Eguna ospatzeko, jarduerak antolatu herrian.(1)</li> <li>5. Euskal produktuen katalogoa familietara helarazi.</li> <li>6. Berba-lagun / Mintza-laguna egitasmoan parte hartu.</li> <li>7. Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektuetan parte hartu. (1)</li> <li>8. Gurasoei herriko euskara ikastaroen berri eman eta parte hartzera animatu.</li> <li>9. Guraso-laguna egitasmoa indartu.</li> <li>10. Ahozkotasuna eta motibazioa bultzatzeko ekimenak antolatu eta burutu.</li> <li>11. Udalak euskaraz antolatzen dituen jardueretan parte hartzera animatu, aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko asmoz.</li> <li>12. Euskal kultura sustatzeko, Udalarekin elkarlanean aurrera eramaten diren ekintzak mantendu.</li> <li>13. Eskolako Proiektua herriko eragileei aurkeztu.</li> </ol> |
| <b>EBPN-aren dinamizatzaile eta bultzatzaile izatea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxeko Hizkuntza Normalizazioaren plana herriko EBPNan txertatu.</li> <li>2. Ikastetxean eraginkorrek diren ekimenak proposatu: ahozkotasuna lantzekoak, motibaziorako aproposak,....</li> <li>3. Herriko Euskal Astearen antolamenduan parte hartu.</li> <li>4. Gurasoei herriko euskara ikastaroen berri eman eta parte hartzera animatu.(1)</li> <li>5. Antolatutako ekintzen jarraipena egin: Udaleku irekiak, gaztetxo etorkinen euskalduntzea,....</li> <li>6. Euskara bermatzen duten ekintzak proposatu: berba-lagun, motibazio-saioak, lehiaketak,....</li> <li>7. EBPNko bileretan, partaide aktiboa izan.</li> <li>8. Hezkuntza arloko ekimenak hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik antolatu.</li> <li>9. Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektuetan parte hartu. <sup>(1)</sup></li> <li>10. Egitasmoen aldeko kanpaina egin.</li> <li>11. Irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak adostu eta EBPNan jaso.</li> <li>12. Ikas-komunitateari EBPNaren egitasmoa ezagutarazi.</li> </ol>  |
| <b>Ikastetxea euskal gune moduan ezaguna izatea eta euskararen erabilera zabaltzea</b>                        | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskararen mundua gure ikastetxetik kanpo atera.</li> <li>2. Ikastetxean antolatzen diren lehiaketak, euskara ardatz dutenak, herri mailan zabaldu.</li> <li>3. Herri mailan antolaturiko ikastaroak, etorkinak euskalduntzekoak, ikastetxean burutu.</li> <li>4. Ikastetxeak euskal kultur ohiturak jorratzen dituenean (Inauteriak, Gabonak,...), herrira bideratu.</li> </ol>  |
| <b>Euskararen erabilera bultzatzea eremu informaletan. <sup>(2)</sup></b>                                     | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herrian erabilera neurtzeko egingo den diagnosian parte hartu.</li> <li>2. Eskolaz kanpoko jardueretan, herri mailan antolatzen direnetan parte hartu.</li> <li>3. Zenbait egitasmo herri mailan antolatu: Kuadrillategi, Berba-lagun/Mintzalagun,...</li> </ol>  |

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Eskaintzen diren ekintzak euskaraz izan eta kalitatea zaintzen dela bermatzea. <sup>(2)</sup></b> | <ol style="list-style-type: none"><li>1. Jarduera desberdinak antolatu eta burutu: Idazlan-koadernoen lehiaketa, Bertso-paper lehiaketa, Antzerki-Astearen antolamendua.</li><li>2. Literatur emanaldia antolatu.</li><li>3. Agenda literarioetan parte hartu.</li></ol> |

<sup>(1)</sup> *Jarduera hau baliagarria da beste helburu batzuk lortzeko ere.*

<sup>(2)</sup> *Helburu honen garrantzia bereiztea gomendatzen da.*

## Ikastetxeen arteko jarduerak eragin-esparrua

Gai hauen inguruan beste ikastetxe batzuekin modu koordinatuan aritzeko helburuarekin sortutako gune, batzorde edo edozein motatako lotura bideak dira hemen zehaztu behar direnak.

*OHARRA: Hemen ikastetxeek elkarrekin egiten dituzten jarduerak sartzen dira. Ez nahastu 1.3. esparrukoak direnak, hau da, ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak.*

| <b>HN IKASTURTEKO PLANAK</b>  |   |
|---|---|
| <b>HELBURUA</b>   | <b>JARDUERA</b>   |
| <b>Berritzeguneko bilerak aprobetxatuz, elkarren arteko trukeak eginez, hizkuntzaren normalizazioa jorratzea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara alorrean, materialen trukaketak egin.</li> <li>2. Esperientzien trukaketak egin.</li> <li>3. Jardueren berri elkarri eman.</li> <li>4. Berritzeguneko mintegi-kideekin lankidetzan aritu.</li> <li>5. HNPko jarduerak elkarren artean trukatu.</li> </ol>   |
| <b>Udalaren Hezkuntza Kontseiluaren bidez, euskara indartze aldera, ekimen bateratuak egitea.</b>                 | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herrian antolatzen den idazlan-koadernoan parte hartu, ikastetxean lehiaketa eginez.</li> <li>2. Euskal ohiturak lantzeko ekimenak antolatu eta parte hartu: Olentzero, Agate Deuna, Kandelario, Inauteriak, Sanjoanak,....</li> <li>3. Herriko euskal dantza eguna antolatu eta parte hartu.</li> <li>4. Antzerki-Astea antolatu eta parte hartu.</li> <li>5. Inauterietako programan parte hartu.</li> <li>6. Herriko Euskara Batzordeko partaide izan.</li> <li>7. Bertso emanaldiak burutu.</li> </ol>  |
| <b>Euskara indartze aldera jarduerak burutzeko, herriko edota eskualdeko beste ikastetxeekin koordinatzea.</b>    | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herriko beste ikastetxeekin bilerak egin eta urteko plangintza egin.</li> <li>2. Herriko elkarteekin batera, aisialdia euskaraz burutzeko proposamen bateratuak egin herriko ikastetxeen artean.</li> <li>3. HNPko jarduerak ikastetxeen artean trukatu.</li> <li>4. Euskararen Astea antolatu eta burutu.</li> <li>5. Beste ikastetxe bateko ikasleekin harremanak egin.</li> <li>6. Euskara ardatz izanik, ekimen bateratuak antolatu: Pilota-eguna, Euskal Olinpiadak, Kirol Eguna, Komiki lehiaketa, piropo lehiaketa blog bat sortu, Euskara eguneko txateoa,...</li> <li>7. BHko ikastetxeari ikastetxeko normalizazioa proiektuaren berri eman.</li> <li>8. Gure institutura etortzen diren ikasleen jatorrizko ikastetxeekin harreman zuzenak izan, euren normalizazioa proiektuek jarraipena izan dezaten.</li> <li>9. Ahozko Adierazpenaren emanaldiak beste ikastetxeetan trukatu.</li> <li>10. Kirol elkarteekin bilera bateratuak egin eta proposamen bateratuak egin euskararen erabilera indartzeko.</li> <li>6. Euskal kultura landu, ohiturak jorratuz: Olentzero, Agate Deuna, Kandelario eguna,....</li> </ol> |
| <b>Euskara indartze aldera, Euskal herriko edota Europako beste ikastetxeetakoekin elkarlanean aritzea.</b>       | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gune soziolinguistiko zeharo desberdina duen beste ikastetxe batekin IKABIL deialdian parte hartu.</li> <li>2. Beste ikastetxe bateko ikasleekin harremanak egin, sare-sozialak erabiliz.</li> <li>3. Atzerriko ..... Ikastetxearekin burutzen dugun trukean euskara eta euskal kultura jorratu.</li> <li>4. Ikabil programan parte hartu.</li> </ol>   |



## Herriko euskara-elkarteak eragin esparrua

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Herrian dauden euskara elkarateak ezagutzea eta ikasleei ezagutaraztea.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara elkarteen berri eman eta euren egitasmoak zabaldu ikastetxean.</li> <li>2. Aisialdiko elkarteei euskaltegiatako jarduerak jakinarazi.</li> </ol>   |
| <b>Euskara elkartearekin elkarlanean aritzea.</b>                              | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mintzalagun /Berbalaguneko egitasmoa jaso eta ikastetxean azaldu.</li> <li>2. Proposatutako kantak ikastetxean landu eta gabonetan herrian abestu.</li> <li>3. Berbalagun/ Mintzalaguna proiektua bultzatu, gurasoak animatuz.</li> <li>4. Motibazio-saioak ikastetxean egin.</li> <li>5. Bertsolaritza landu.</li> <li>6. Guraso-elkarteari elkarteen berri eman.</li> <li>7. Euskal kultur jardueretan parte hartu: Santa Agedako koplak abestuz, Olentzeroren ekitaldian parte hartu, Inauterietako programan parte hartu,....</li> </ol> |
| <b>Euskaltegiarekin elkarlanean aritzea</b>                                    | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berbalagun /Mintzalagun egitasmoan parte hartu.</li> <li>2. Gazte etorkinentzako ikastaroak antolatu.</li> <li>3. Gurasoei herriko euskaltegiak eskaintzen dituen ikastaroen berri eman.</li> </ol>  |

## Bestelako elkarateak eragin esparrua

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Aisialdiko taldeekin elkarlanean aritzea, euskararen erabilera bultzatzeko.</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko, talde hauekin koordinatu.</li> <li>2. Begirale euskaldunak kontratatu.</li> <li>3. Euskal jolasak lantzeko proposamena adostu.</li> <li>4. Motibazio-saioak ikastetxean egin.</li> <li>5. Guraso-elkarteari aisialdi taldearen berri eman.</li> <li>6. Euskal kultur jardueretan parte hartu: Santa Agedako koplak abestuz, Olentzeroren ekitaldian parte hartu, Inauterietako programan parte hartu,....</li> </ol> |
| <b>Kirol-elkarteekin euskara indartze aldera elkarlanean aritzea.</b>              | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berbalagun egitasmoan parte hartuz animatu kirol begiraleak.</li> <li>2. Herriko pilota-topaketak antolatu, euskararen erabilera lehenetsiz.</li> <li>3. Eskualdeko kirol-olinpiadak antolatu, euskararen erabilera lehenetsiz.</li> <li>4. Kirol begirale euskaldunen beharrez aztertu eta euskalduntzeko jarduerak adostu.</li> <li>5. Igeriketa ikastaroak antolatu eta begirale euskaldunak eskatu.</li> </ol>   |
| <b>Kultur elkarteekin ekimenak burutzea.</b>                                       | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bertsolaritza-elkartekoekin batera Bertsolaritza landu.</li> <li>2. Gerediaga Elkartearekin, eskolan jarduerak euskaraz egin.</li> <li>3. Bakearen Museoko arduradunekin jarduerak euskaraz burutu.</li> <li>4. Galtzaundi elkartearekin egitasmoa adostu.</li> <li>5. Mendebaldeko Alkartearen bidez prestakuntza adostu.</li> </ol>  |
| <b>Erakunde desberdinekin lanean jardutea</b>                                      | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Udalak antolatzen dituen Begiraleentzako ikastaroak, euskaraz antolatzen direnak, zabaldu gazteen artean.</li> <li>2. Foru Aldundiak antolatzen dituen kirol jardueren berri izan eta hizkuntza-irizpideak</li> </ol>  |



| HN IKASTURTEKO PLANAK |             |
|-----------------------|-------------|
| HELBURUA              | JARDUERA    |
|                       | jakinarazi. |

### Euskal komunikabideak eragin-esparrua

Euskal komunikabideen erabilera ikastetxean. Egunkarien harpidetzak, parte-hartzeak...

| HN IKASTURTEKO PLANAK  |  |
|--|--|
| HELBURUA   | JARDUERA   |
| <b>Irakurmena sustatzeko asmoz, euskaraz argitaratzen diren egunkariak ikastetxean irakurritz, irakurzaletasuna bultzatzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Berria egunkariko harpidetza egin.</li> <li>2. Eskualdean zabaltzen den euskarazko prentsa idatziaren harpidetza egin.</li> <li>3. Eskualdean zabaltzen den euskarazko prentsa idatziaren harpidetza egiteko, ikastetxean kanpaina egin.</li> <li>4. Ikastetxeko webgunean euskal egunkarien estekak egin.</li> <li>5. Mediatekan euskal egunkariaren aleak izan egunero.</li> <li>6. Euskal egunkariak Euskal Hizkuntza eta Literatura lantzeko erabili.</li> </ol>   |
| <b>Irakurmena sustatzeko asmoz, euskaraz argitaratzen diren aldizkariak ikastetxean irakurtzea. Irakur-zaletasuna bultzatzea</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Umeentzako egokiak diren aldizkarien harpidetza egin eta ikasgelan erabili: Mantangorri,...</li> <li>2. Gazteentzako motibagarriak diren euskal aldizkarien harpidetza egin erabili: Gaztetxulo,...</li> <li>3. Irakasleen prestakuntzarako, euskarazkoak lehenetsi: Hik Hasi, Jakingarriak, "Administrazioa euskaraz"-..</li> <li>4. Dibulgaziokoetan, euskarazkoen harpidetza egin: Elhuyar,...</li> <li>5. Ikastetxeko webgunean euskal aldizkarien estekak egin.</li> <li>6. "Argia" aldizkariaren harpidetza egin.</li> <li>7. Mediatekan /Liburutegian, aldizkarien aleak izan, ikasleen eskura.</li> <li>8. Euskal aldizkariak ikasgai desberdinetan erabili.</li> </ol>            |
| <b>Euskal komunikabideak ahalik eta gehien ezagutu eta erabiltzea.</b>   | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara arloan, material didaktiko moduan, euskal prentsa idatzia erabili.</li> <li>2. Tokian tokiko telebisten ahozko testuak ikasgelarako erabili.</li> <li>3. "Mihiluze" programan entzule moduan parte hartu.</li> <li>4. "Mihiluze" programako jarduerak ikasgelan erabili.</li> <li>5. ETB 3ko materialak ikasgelan erabili.</li> <li>6. Eskolako ekintzen berri euskal komunikabideetan azaltzea.</li> <li>7. EITBren egoitza bisitatu.</li> <li>8. EITB-ko "Nahieran" katalogoaren berri ikasle eta irakasleei eman.</li> <li>9. Durangoko azokara bisita egin.</li> <li>10. Euskarazko web-orrien katalogoa banatu ikasleei.</li> <li>11. "Berria"ren egoitza bisitatu</li> </ol> |
| <b>Hurbileko euskalkia lantzea.</b>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Irrati euskaldunen entzunezko materialak erabiltzea.</li> <li>2.- Tokian tokiko telebista ikustera animatu ikasle-irasleak.</li> </ol>  |

| HN IKASTURTEKO PLANAK |   |
|-----------------------|---|
| HELBURUA              | JARDUERA  |
|                       | <ul style="list-style-type: none"><li>3.- Material didaktiko moduan EITB-ko ahozko testuak erabili.</li><li>4.- Herriko irrati-saioretan parte hartu.</li><li>5.- Euskalkia jorratzen den hedabideekin elkarlanean aritu.</li><li>6.- Ikastetxeko irratia entzutera animatu .</li><li>7.- Herriko/eskualdeko zabalkundea duten irratiekin elkarlan sistematikoetarako akordioetara heldu.</li></ul> |

**OHARRAK****i EHA - 2007ko azaroak 13, asteartea N.º 218 ZK. III. KAPITULUA. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA. 17. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua**

- 1.- Dekretu honen esanetara, ikastetxeak egindako hezkuntza-aukera eta hark ezarritako jardunbide-ildo nagusiak jasotzen dituen proposamen-agiri osoa izango da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, hezkuntza komunitateak ikastetxean egingo duen hezkuntzako esku-hartzea koherentziaz zuzentzeko erreferentziazat erabiliko dena.
- 2.- Honako hauek jasoko ditu Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak: hezkuntza-jardueraren balioak, helburuak eta lehentasunak; ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak eta aukera askeko irakasgaien eskaintza egiteko erabiliko direnak; ebaluazio-prozesuko alderdi orokorrak; tutoretzako ekintza plana eta aniztasunaren trataerarako neurriak; eta ikastetxeak erabakitako bestelako alderdiak. Hori guztia finkatzeko, euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarri eta premiei ere. Halaber, aintzat hartu behar da hezkuntza-helburuak lortzeko eta oinarritzko gaitasunak eskuratzeko bidea erraztea izan behar duela agiri horrek finkatutako neurrien helburuak.
- 3.- Ikastetxeetako ordezkaritza-organo gorenaren eta itundutako ikastetxe pribatuetako ordezkaritza-organo titularraren egitekoa izango da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Agiri hori argitara eman beharko da.
- 4.- Ikastetxeek, halaber, familiekiko, profesionalakiko eta ikasleekiko konpromisoak sustatuko dituzte, batzuek zein besteek zer eginkizun eta jarduera egiteko konpromisoa hartuko duten zehazteko eta hezkuntza-prozesua errazteko.
- 5.- Ikastetxeek, beren autonomia erabilita eta araututako esparruaren barruan, esperimentazio-saioak eta lan-planak egin ditzakete, antolamendu moduak probatu eta eskola-ordutegia handitu; baina, betiere, familiak aparteko ekarpenik egitera behartu gabe eta hezkuntza-administrazioari eskakizunik egin gabe.

**ii EHA - 2007ko azaroak 13, asteartea N.º 218 ZK. III. KAPITULUA. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA. 19. artikulua.- Ikastetxearen Curriculum Proiektua**

- 1.- Dekretu honen esanetara, dekretu honexek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena da curriculum-proiektua.
- 2.- Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozio-ekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarri eta premietara, eta ikastetxearen hizkuntza-aukeretara eta ballabideetara egokitu behar du dekretu honen eranskinetan araututako curriculumak; betiere, ikastetxeko hezkuntza-proiektua erreferentziazat hartuta. Hala, curriculum-proiektuak Oinarritzko Hezkuntzako irakaskuntza-edukiak zehaztuko ditu Lehen Hezkuntzako zikloetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako, eduki horiek dekretu honetan araututako curriculum ofiziala betez irakats daitezten.
- 3.- Ikastetxearen Curriculum Proiektuak honako alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:
  - Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan jasoak. - Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak.
  - Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuko curriculum-alderdiak.
  - Pedagogia-irizpideen eta irizpide didaktikoen zehaztapena, bai eta metodologia-aukerena eta curriculum-materialei buruzkoa ere, betiere, ikastetxeko irakasleen lanaren jarraikortasuna eta koherentzia bermatuta izanda.
  - Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza-sistemara berandu sartu direnena.
  - Aukerakotasunari eta curriculum desberdineko alderdiei buruzko erabakiak.
  - Tutoretza-ekintzarako irizpideak eta hezkuntza-orientazioa egiteko moduari buruzkoak.

**iii EHA - 2007ko azaroak 13, asteartea N.º 218 ZK. III. KAPITULUA. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA. 18. artikulua.- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua**

- 1.- Dekretu honen esanetara, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Hezkuntza-proiektuan jasotako irakaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

---

2.- Ikastetxeek hezkuntza-proiektuaren barruan jasoko dute beren hizkuntza-proiektua.

<sup>iv</sup> **EHA** - 2007ko azaroak 13, asteartea N.º 218 ZK. III. KAPITULUA. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA.18. artikulua.- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.